

**Jesus Aua' ren**


---

**SORORE TERESATXO ZORUNDUNARI**

---

**Bederatziurena**

---






II-8494  
R-6259

ATV  
4459

JAUNGOIKO ZALE'REN IDAZTIAK—24



# JESUS AUÑAREN

**Sorora Teresa'txo Zoriondunari**

**BEDERATZIUÑENA**

**BERAGANDIK GOGOZKO AURTASUNA IRISTEKO**

Egunoroko otoiz-gai eta Sorora  
beraren itz-xorta batzuekin

**Jesus'en Lagundiko A. batek egiña**  
**Gazteiz'ko 'SEMINARIUM CONCILIARE' ko Kardaberazfak**

EUSKERATUA



1925

JAUNGOIKO - ZALE'REN IRARĀKOLAN  
ZORNOTZAN.—(Bizkaya)

*Nihil obstat*

*José Miguel de Barandiarán*

**IMPRIMATUR**

Vitoriae 2 Jaunarii 1925

† *Episcopus Victoriensis*



JESUS AURA'REN SORORE TERESATXO  
ZORIONDUNA





# SORERA

*Aurtxo txikien antzeko egiten ez bazerante, etzaudete zeruan sarturik.*

(Math. XVIII-3).

1873'gn. urtean jaio zan Sorora Teresa'txo. 1897'gnean, il zan: gure urteetakoa zan, gure egunetan santu egin da; eta ez luzaroan bizi izan-ta: A. Loyola'k, Hoyos'ko Bernardo Gurgariarentzat esan zuana bete betean esan dezakegu gure Sorora txiki onentzat ere: ogei-ta lau urteko bizitza laburtxoa izan zuan, bañan Jaungoikoak urte luzeetan inorenengan sortu dezaken aña onbide ta grazi bazuan il zanean.

Frantzia'n Alentzon deritzaion eñian jaio zan, 1873'gngo. Ilbeltzaren 2'an: bere aurtzaroa aita ta aizpatxoekin xintxo ta garbi igaro ondoren 15 urtetara eldu zanean, Lisieux'eko Karmeldegian sartu zan. Bedera-tzi urte ta erdi besterik ez zan bizi izan komentuan: itxuraz gauza aundi ta berezirik ez zuan egin; bear bada, beti mintxu ta gaxo zebilako komentuko gañerako aizpak baño ere gutxiago egiten zuan; ta, ala ere, nexka ura santutasunean noraño igo zan ezin esan ditke: eñiak oyu batez alde batetik eta Jaungoikoak bere milagro ta afigarien bitartez beste aldetik, gogoz aitortu dute monjatxo onen santutasun aundi ta berezi

-berezia, eta ixildu ez dira alik eta Eliza bere irudia aldareetan jartzera beartu duten arte.

Eta ala da, izan ere: berak idatzirik utzi zizkigun liburuak irakurtzea naikoa da: santutzeko bideetan ez-jakiñena danak ere, bere liburuen ofi gozoak irakurtzean bereala igariko dio zeñen arigarizko gauzak egiten zituan Espiritu Santuak bere biotzean, eta zeñen xintxo eta afezaz erantzuten zion Teresa'txok biotzean nabaritzen zuan dei gozoari. Ez da asmatzen erexa zer dan arigariago liburu ortan, egilearen erugabetasuna, ala bere apaltasun aundia; arako, Jaungoikoaren eskuetan bere burua uzte ura, ala inorekin jarduteko zuan goxotasun eta xera atsegiña. Gauza bat beintzat badakigu: onbide oiek guztiak eta Elizak bikaintzat eman dituan beste asko ta askok ere zain bat zutela: eta zain erotsu ori, berak «nere bidetxoa» esaten zuan *gogozko auratasuna* zala.

Txiki-txikitandik ikasi zuan Jaungoikoa nor dan eta bera zer zan: Jaungoikoa, kristau guztien Aita maitatia; bera beñiz, Aitaren *alabatxo txikia*: bera, gauza pifiña, ezer-eza, eta ezer etzezakeana, bañan Aitaren eskuetan eta bere laguntzarekin nai zuan guztia egiteko naikoa.

Bi izartxo oiek argi egiten zioten beti, argi oieri jarraituaz laister arkitu zuan Belen'en Jesus aurtxoa; laztan bat eman zion eta geroztik etzan bere ondotik kendu: orduan asi zan umetxo bat bezela, Jesus nora, Teresa'txo ara, alik eta Kalbario-mendirano eldu zan arte: Jesus aurrekin batera antxe laztandu zuan Gurutzea: Jaungoikoaren Mendirik goienez dagon Gurutze Donea, antxe laztandu zuan.



Bañan *bidetxo* ori etzion beretzat bakarik erakutsi Jaungoikoak Teresatxo'ri; guretzat ere bai; eta Teresatxo'k berak aitortu zuan zaleturik zegola besteai ere erakusteko.

Geiago oraindik: ba-dirudi beste eginkizun gabe ortara bidali zuala Jaungoikoak Teresa'txo mundu aronputz onetara: *bidetxo* ori guri erakustera. Eta ala da izan ere: Jaungoiko Gure Jaunak egi bat edo jaiera bat lenengoz erakutsi nai digunean, edo zeruko, berria dirudian bide batetik eraman nai gaituanean, naiz aspaldiko oitura on edo onbideren bat soñeko beriz apa-indurik erakutsi nai digunean, edo ta itz batean esateko (gauzak nolapait ere esan bear dira-ta) Jaungoiko gure Jaunak zeruko *moda* beriren bat agertu nai digunean, orixe egiten du beti: artarako on dan norbait berexten du ta zeruko *moda* ori alegin guztiaz jañaitzeko gogoa ematen dio, eta azkenik aldareraño jasotzen du, beste guztiak ikusi dezaten eta aren bideari yañaitu dezaioten.

Eta zeñen lañi-antzera ibili dan gero Jauna bere Alabatxo maite onekin. ¡Bai arin egin dituala Teresa'kiko egitekoak! (1) Oraindik ez dira 27 urte il zala eta bere ospea, bere ots-aundia, lur zabal guztik banatu da: eta ez omen-da izan azkeneko urte otan (ala dio gai ontan nagusi dan Erómako Kardenal Jaun batek) azkeneko urte otan ez omen-da izan santurik, jendeak bera Aldareetan ikusteko Teresatxo Santu igiñik ikusteko baño gogo geiago izan duanik: iñoiz ez bezela

---

(1) Teresatxo'ren lau aizpa bizi dira oraindik. ¡Nolako poza izango zuten gaxoak beren aizpatxoa Erómako Aitak zoriondunen mañara jaso duanean!

bat egin dute eñiak Teresatxo'ren donetasuna ots batez aitortzeko.

Bizi zalarik danak maite zuten; il-da gero ere danak oso maite dute (1) eta len-bai-len santu egiñik aldareetan agur egin nai diote guztiak.

Zergatik ordea?: Edeña zalako? Edeña zan, egia; baña ez da ori naikoa. Ona, atsegiña, goxoa zalako? Ala zan; baña ez da ori ere mundu guztia oñela nasteko naikoa. Gure egun otan oñen santu ariñak egiñik ikusten degulako? Ori ere ala da; baña beste asko ere bada gure egunetan santuak eta ez txikiak guztiak. Zergatik, ba? Ezin ukatu diteke Jaungoikoaren eskua dabilela arazo onetan. Izan diteken mañarik goienean, aldareko mañatan, ipiñi nai du nunbait Jaungoikoak Santu gazte au, danak begiratu dezaioten. Eta zer nai ote-du Jaungoikoak guk Teresatxo'gan ikustea ta ikastea? Zer naiko du guk ikastea, Teresatxo'k maiteen zuan onbidea ez bada, bere gogozko aurtasuna ez bada?

Gogozko Aurtasunaz gañera beste onbide batzuek ere nabaritzen dira Teresatxo'rengan: Mixio-zalea izatea, besteren gaiztakeriak gatik bere burua Jaunari oparitzat ematea eta apaizak onak izan ditezen Jaunari otoitzak eta nekeak eskeintzea.

Mixioen aldeko zaletasuna, iya orain arte komentuetako landarea izan da: gaur kristauak dituzten bizibide guztietan banatu da bere azia: gaur misio-zale asko da munduan, ez praile ta monjatan bakarik, baita

---

(1) Aritzeko gauza da: Protestanteak berak ere txoraturik dauzka Teresatxok.

apaiz, apaiz-gai eta gañerako kristauetan ere, naiz aundizki, naiz txee, naiz ezkongai, naiz ezkonduetan.

Bere ontasunak, bere izen ona, bere osasuna, dana, pekatarien alde Jaungoikuari eskeintzen dion eta Jaungoikoak eskañi ori ontzat ematen dion asko da gaurko egunean edozein tokitan: uste diran guziak ez dira ala izango noski, baña asko dirala, ezin ukatu: orain ez dakigu, bañan egunen batean jakingo degu nolako mesedeak egiten dizkiguten, guk uste gabe, eta zenbat zor diegun anima on gaxo oiei.

Sena'ko Santa Katalina'k eta aren antzera beste askok, apaizen alde egin dituzten otoitzak, eta eraman dituzten nekeak esan ere ezin ditezke, eta esan-da ere ezin zinistu ditezken añaakoak dira: gaur iñoiz baño zabalduago dago apaizak santuak izan ditezen Jaungoikoari eskeñi oiek egiteko oitura ona.

Baña guztien gañetik bezela, Teresa'ren *bidetxoa* da, ainbat urtean mendietako bidexka bat orbelpen bezela, Liburu Doneetako ori artean gorderik egon ondoren, gaur dan eguneko anima onak arkitu duten bide eñaza: bide egokia, aldi onetarako izan diteken egokiena eta onbide guztien oñañi ta zuztaña izateko sortua. Egia da gogozko aurtasun ori oraindik goixamañean dagola: egia da orain arte iñor gutxi igo dala odei eder ori ikututzeraño; bañan egia da baita egunetik egunera, Teresatxo il zanezkero, odei ori laño biurtu dala ere, ta gero ta berago, gero ta berago, anima txreak dauden ibar eta eñeka sakonenetaraño iya eldu dala.

Oietaz gañera ba-dira gaurko egunean Jaungoikoak zabalduzik ikusi nai lituzkean, bañan Teresatxo'gan

ain argi azaltzen ez diran beste bi zaletasun ere: Jesus'en Eukaristiazko Biotz arekiko eta Mariaren Menpetzarekiko zaletasuna, eta bi zaletasun oiek bat egiteko jaiera gañera, edo Ama Maria, Seme Jesus'en Eukaristiazko Biotzaganako bitartekotzat artzen duan zaletasuna edo jaiera. Baña, bi zaletasun oiek ain argi Teresatxo'rengan azaltzen ez badira ere, zer ziran etzekiela ezin esan dezakegu, eta uste izatekoa da obeto, zaletasun onek ere zain erotsuak izango zituela bere biotz eder eta maitatian.

Beragatik okeñ aundirik gabe siñistu diteke Jaungoikoak gaurko eguneko munduan zabaldu nai dituan zeruko berien ekartzale zala Teresatxo zorionduna; eta nork daki bere ondotik etorriko ez ote-dan, gogozko *aur txiki*-talde batekin, gaurko arokeriari burua zapalduko dion Arko'tar Juana berien bat? Askotan eskatzen zion Jaungoikoari gure nexka afigari onek olako talde bat bidali zezala len-bait-ien, eta oraindik ere zeruan ori eskatuko dio noski bere Jesus maiteari.

Berak esan izan zuan bizi zalarik: *bera ta beste askoren onerako eman zizkiola Jaungoikoak ainbeste grazi ta doai* eta zeruan izango zuen atsegiñik aundiena luñekoai on egitea izango zala eta il ondoren irabaziko zituala garaitzapenik aundienak arosazko eraso gozoa animetan ixuriaz. Oraintxe du ba agindutako guztia egiteko garaia; oraintxe dago zeruan: orain beriro (1923'gngo. Joñaila'n) jaso du zoriondunen mañara XI Pio Aita Santuak: datoñen Mayatzean ipiñiko du Aita Santu onek berak bere izena Santuen Izentegian. Eliza Amaren erabakia sendotzeko edo, maña oñetan dauden artean egin oi dituzte santu guztiak beren mesede ta afigaririk geyenak. Beragatik aundia izan bear du garai

onetan Teresatxo'ren eskuak, eskatzen dioguna guri emateko: aundia izan bear du baita, beraganako gure usteak ere.

Zer eskatuko diogu, ordea? Besteren batek eska bezaio nai duan bezelako ta nai duan usai ta koloreko afoa; nik badakit zer eskatu: eskutik bezela eraman nazala berak ain igotze aundiak egin zituan *bidetxo* ortan gora. Auxe izango da eskatu genitzaioken gauza guztietan guretzat onena, Eliza Amarentzat beaena eta Teresatxo'rentzat atsegiñena.

Oretaraxeko ta orain arte ezer entzun ez zutenak, onez auera *bidetxo* onen beñi izan dezaten, idatzi degu bederatziurñen au: Teresatxo'k bedeinkatuko al-du: ala eskatzen dio bederatzi urñenaren egileak eta baita euskeratzaileak ere.







# BEDERATZIURENA

---

## EGUNEROKO ASIERAKO OTOITZA

Jesus Auñaren Zoriondun Teresatxo! Nola-ko lotsaz natoñen zu, nere bitarteko maitagañi oñen auñeko aldera!

Ogeitalau urterako igo ziñan zu santutasu-nezko mendi tontoñeraño eta gaur aldareetan ikusten zaitugu. Ni beñiz, onenbeste urte igarota, oraindik igotzen asteko! Zenbat okeñeko ibiltze egin dedan! Zenbat oinkada alpeñik!

Ala ere, Jaunari eskeñak, oraindik badet zu zauden leku oñtara igotzeko gogo pixka bat; bañan orain arteko nere alegiñak alpeñik izan dirala ikusi-ta, etsi det nerez ezer ezin deza-kedala: erakutsi-ezadazu zuk zure *bidetxo*.

Badakit bide ori eñexa dala zu bezelako txiki, apal eta garbientzat; bañan baita ere igañi det gaitza dala, oso gaitza, nik bezela bi-

de órétan laguntzarik gabe ibili nai izan duten aroxkoentzat.

Iritxi ezadazu, beraz, zure Erakuslea dan Espiritu Santuagandik eta zuretzat Anai zaíena bezela dan Jesus Auragandik eta guztiok Ama degun Andre Maria'gandik, bide onetan xuxen ibiltzeko naita-naiezkoa dan argia ta gora igozteko bear dedan indaía. Amen.

*Otoitz onen ondoren otoiz-gaia irakuriaz egunero-ko gogañkuna egingo da; eta urén Jesus Aurari AITAGURE bat eta Andre Mariari iru AGURMARIA esango zaizkie, Gogozko Aurtasuna iristeko.*

## EGUNEROKO AZKEN-OTOITZA

Afokeriz dana aunditurik dagon gizadi oni gogozko Aurtasuna erakustera Jaunak bidaldu zaituan Teresatxo! Bizirik biotzean zenduan maite-sugaía ez zaizu iltzean itzali: zeruan sukín ohea arkitu du ta len baño askotaz biziago daukazu. Luíean ezer ukatzen ez zenekian ofek, nekezago ukatuko diguzu orain zerutik. Jaunak emandako grazia ta doai ugariak zuretzat eta besteentzat emanak zenituala, eta zeruan luíekoai mesedeak egiten bizi nai zenduala, eta zure garaitzapenik aundienak il-ondoren irabaziko zenituala esan zenduanezkero, iraba-



zi ezazu Jaungoikoarentzat nere biotz gaxo au. Bota ezazkizu besteai berak nai dituzten arosak: neretzat gorde ezazu, zuk eta nik maiteen duguna: Gogozko Aurtasun-sasi-árosatxoa.

Zerórek agindu zenduan zerutik luñera jaxiko ziñala. Eta alaxe da: nere ondoan zaitudala iduritzen zait: arosatxo bat eskeintzen didazula uste det askotan, zuk maiteen dezun arosatxoa. Ezañi ezadazu, bai, biotzaren erdi-erdian, zuk bezela lore eder ori nere bañuan joaturik eta il arte eze-eze ta goñi-goñi ondo gorderik, bere usai gozoaz Jesus eta Maria'ri atsegin eman dizaiedan, eta nere lagun urkoak bere edertasunaz zoratu ditzadan.

Maria Birjiña, zuk nere Ama maite orek ondo dakizu zeñen alpeñikakoak izan diran onbidearen mendi-tontoñera igotzeko orain arte egin ditudan alegin guztiak. Artu nazazu bezelaxe, aur txiki bat artzen dan bezelaxe, zure besoan, eta eramán nazazu, añen, goi oretaraño: oñela, zuretzat eta zure alaba txiki Teresatxo'rentzat izango da aintza guztia. Añen, zure alabatxo onek Gogozko Aurtasunerako irabazitako bat izan nadiñala ni ere: *txiki-talde* onetakoa izan nai det emendik auñera. Etsi dezadala, beti nere txikitasunean: igañi dezadala,

Ama, zure biotzaren samurtasun gozoa lúrean zure ume txikia izan nadin eta gero emengo zure musu ta laztanen ondoren zeruan Jesus'ek umeantzat agindurik daukan exerlekua iritxi dezadan. Amen.

## LENENGO EGUNERAKO OTOITZ - GAIA

### **Gogo-bizitzan aur izatea bearezkoa degu.**

Gogo-bizitzan, nola edo ala aur edo txiki izan beaz degula, ez da esan utsa, beaz-bearezkoa degu ori. *Gizona, uraren eta Espiritu Santuaren bitartez beiro jaiotzen ezpada, ezin sartuko da zeruetan*, esan zion Jesukristo-k Nikodemus-i (1) Paulo doneak auxe dio: *Jesukristo-gan, ebakia edo txeritatua izan, naiz ez izan, ez da ardura, izaera beira da aintzat artzen dana* (2). Galazitarai auxe die Done berak: *Jesukristo zuengan beritu arte, oster egiten zaituztedan semetxo maiteak*. (3).

Beraz, benetan gogo-bizitzara beriz jaiotzen gera, Jaungoikoaren seme egiten gaituan

---

(1)—Joann. III-5.

(2)—Gal. VI-5.

(3)—IV-19.

Jaungoikozko izaki berezia bataio donean ematen zaigu-ta: izaki ořek Jesukristo txiki batzuk egiten gaitu.

Jesukristo txiki ořek bere txiki ořtan egon beař al du beti? Ala, beste izaki biziai geřtatzen zaien bezela, azi ta indařtu egin beař al du ořek ere?

Gizon oso eta egokiak izatera eldu ařte, Jesukristoren antzekoak izatera eldu ařte guztian, geron buruak ezitzen jařdun beař degula agirian dago.

Ori ořela izan ařen, Jesukristo-k txiki izatera biuřtu beař dutela esaten die apostolu berai; duten izaera utzi, eta, auř izaten alegindu beař dutela. *Auřtxoak bezela izatera biuřtzen ezpazerate.....* Jesukristo-k ez digu emen bere adiskide egiten gaituan izaera bereziaz itz egiten, bere adiskide bait-ziran ořdurako apostoluak; gogo-bizitzan, beste bizitza ontan auřak duten jatořizko izaera ta jařduteko egokitasuna guganatu beař ditugula adierazi nai digu.

Eta, eredutzat ez die auř azi xamař bat jařtzen; txiki bat jařtzen die, Mateo Donearen bitařtez esan zuan bezela. Gañera, zeruetan etzirala sařtuko arelakoak izaten ez ba-ziran.

Ona zergatik: Goiko-Jaunaren eskuetatik

iften bezelakoxea agertzen zitzaion gizona Jesus-i aurtxo bat ikusten zuanean: Berak beriz ere jañi nai zuan bezelakoxea. Aurtxoagan ezañiak bezela zekuskian Berak zituan onbide ederénak: gero guri erakutsi nai zizkigunak. Beraz aítzekoa al da aurak ain maite izan ta aienganako alako naia agertzea? Bere adiskide aundienai, Apostoluai, aiek eredutzat jaítzea ainbesleko gauza arigaña al da?

Nikodemus-i, beriz jaio beaña adi-gaitza baldin - bazitzaion, apostoluai ere agian etzitzaien ain gauza bidezkoa irudituko, berak aúre aítantxe bialdu zituzten aúf aietxek bezelaxe izan beaña.

Baño, auzia erabakita zegoan; zuten izaera utzi ta aurtxoak bezelaxe izatera biurítzea beste biderik etzegon.

Eta, Apostoluak Gogozko Aurtaşun apal oretara jetxi beañean arkitu baziran ¿oretara gabe gelditu al giñezke gu? ¿Aurtaşun oren araupean bizitzeak lotsatu egingo al gaitu?

Lotsatuko bagiña, zeruko ate estu ta txikitik aúfera ezin egiñik ibiltzeko eran jañiko genituzke geron buruak.

¡Nere Jesus Maitea! Zeñen gogofak diran gizonaren aundi-naiarentzat Gogozko Aurtaşu-

naren arauak! Oñela izan nai ez duanik izango ote da ordea, Zu, Jaungoikozko izaera ber-bera dezun Ori, Auñá bezela agertu nai izan dezula ikusirik, auñak dituen ez-beaí guztien azpian zu ikusirik? Zu maite zaitudalako, ta Zure antzekoa izatearen, nik ere txiki egin nai det nere burua, auñá izan nai det.

Aundikeri eta ospe guztiak luñean bizi dirarentzat izan bitez; nik, Zure mirabe, Zoriondun Jesus Auñá-ren Teresatxo-k bezela, zure abegi on eta laztanak aítu al izateko, Zu bezelaxe txikia izan beste aunditasunik ez det nai.

### **Teresetxo'ren itz-ixoña Gogozko Auñtasunaz**

1) Zerurako bidea oztopoz eta añi kaskañez be-tea agertzen duten idazti batzuek irakuñtzen ditudanean, nere gogo añgal txikia berealaxen nekatzen da. Biotza agoñik uzten duan oñelako liburu astuna baztañeratu, ta **Lege Zaí ta Befi**-ko idaztia aítzen det eskuetan. Orduan, guztia oso argitua iduritzen zait; itz-txo bakañ bakañ batek, oso zabalgunee aundiak agertzen dizkio nere biotzari; onbidea erexagoa iduritzen zait; norberaren ezerezkeria ezagutu, eta, auñtxo bat bezela Goiko-Jaunaren eskuetan atsedetea aski dala iduritzen zait.

2) Bakañtasunean bizi izaten zan arako aren esana: «biziak dirautan guztian, sulezeko gañetara joango ote naizen belduñ izango naiz», ontzat aítzen al de-

zu zuk ere? galdetu zioten bein bere ikasle beñiak. —«Ez, txikiegia naiz añen beldur izateko; aurtxo txikiak ez dira sulezean amiltzen».

3) Txiki irauteak zer esan nai du? —Norberaren ezerezkeria aitoñtu ta guztia Goiko-Jaunagandik itxarrotea da, gure uskeriakatik geiegi ez laritzea; aberastasunik ez nai izatea, ezergatik ez estutzea, itz batean. Etxerik beañtsuenetan ere, beañ duana eman oi zaio aurari oso txikia danean; aundia danean ordea, aitak, ez du alpeñ ikusi nai izaten, ta «zoaz lanera orain, zere buruarentzat aña bazera-ta» esaten dio. Orixe ez entzuteañen, eta, nere betiko bizitza irabazteko gauza enaizela ezaguturik, ez det aundi izan nai.

4) Kristauai Gogozko Aurñtasun bidetxoa erakutsi nai diet, itxaropen bidea, norbere buruari uko egiteko bidetxoa. Irabazi edeñak ateratzeko izan ditudan bideak erakutsi nai dizkiet, eta, emen, lurñ ontan gauza bakañ auxe egin beañ dala esan: Jesus maitea, penitentzi txikien loretxoak eskañiaz poztu, bere Bizitza laztan gozoz irabazi. Oñrelaxe nereganatu al izan det nik.

## BIGAÑEN EGUNERAKO OTOITZ-GAIA

### **Gorputzeko ta animako garbitasuna**

Umeengan azaltzen diran gauzarik edeñetan bat beren animako garbitasuna izaten da.

Ez da gogarkun itxusirik umearen adimenean, ez makurkeri lizunik ere bere naimenean;

ez eta oroitzaki zatañik ere bere oroimenean. Bere buruan soñtzen dan guztia garbia da; bere biotzean nabaitzen duan dana erugabea.

Umearen gorputza bere anima garbiaren ixpilua bezela da. Gorputz arek ez du lotsagarizko igikunik. Ezin diteke izan ura baño garbitasun aundiagorik.

Olakoxea izango zan Adan eta Eba'rena ere Eden'go Paradisuan: baita olakoxea izango da, aingeruena bezelakoxea, gurea ere zerura joatean.

Nola izango da, beraz, añitzekoa, lilitxuri artean azia dan Jesus'ek ume-arteon egon naizatea, umeak ain maitekiro bedeinkatzea ta ain estu laztantzea? Garbitasun aingerutar au, doai berezi bat da, irixten zaia eta bat ere ondatu gabe eukitzen oso gaitza: ixpilú eder bat bezelaxe arnasak berak ere lanbrotzen bait-du.

Beragatikan da ain edergaíi bikaña: Soñeko eder onek apaintzen duana laister sartzen da Jesus'en Biotzean.

Zeruko garbitasuna ta zoriona iritxi nai badegu, saia gaitezen emen ere aurtxoak bezin garbi izaten. Garbitasunik bikañena gogotik maite izatea; begiai, belañiai eta biotzari nai dutenera joaten ez uztea; geiegi lañitu gabe, ba-

ñan nabaritu orduko igikun lotsagañiak uxatzea; askotan eta ondo aitortu ta Jauna artzea; geren buruagan usterik ez izatea eta saritan Jesus eta Maria'ren Biotzai otoitz-egitea: oietzek dira beti garbi irauteko bitartekorik onenak.

Zoriondun Teresatxo! Zuri zure biotz ederearen ixpilua dezun aurpegi oretara begiratzea naikoa zan, garbitasun-nai bizi batean pizturik gelditzeko. Zurearekin Jesus'i ta Maria'ri eman zenien atsegiñagatik aeren bidali iguzu zeroek agindutako arosazko erasoan lili txuri bat, garbitasun-lili txuria, eta lagun zaiguzu berori beti garbi eukitzen, egunen batean zure eskutik artu bezin eze ta garbi zeruan utzi dezagun.

### **Teresatxo'ren itz-xorta, garbitasunaz**

1) Beste gogo bizi bat izan nuan: Jauna besterik ez maite izatekoa, eta Beragan bestetan alaitasunik ez arkitzekoa.

2) Badaki inpernuko etsaiak, ez dezaiokela gogorean pekaturik egiñazi oso-osorik Jaungoikoarena izan nai duan kristauari. Beragatik, bere alegin guztia izaten da olakoari pekatu egin bear lukeala buruan sartzea: pekatu egiñaz Jaunari naigabea emateko inori gogoa berotzea. Naikunde biuria ez bada gero ori! Alare ez du ori naikoa izaten; Jaungoikoarekiko duan



bere amoruan, naigabea emanaz gañera, bere jauregi batean bezela bizi dan gizonaren biotzetik aurrean ateranai izaten du biotz guztien jabe dan Jesus maitea.

## IRUGAREN EGLINERAKO OTOITZ-GAIA

### Tolesgabetasuna

Garbitasunak tolesgabetasuna sortzen du umearen biotzean: umeak ez du eskuturik, ez du ezer ezkutatu bearik, ez bait-du gaiztakeririk: nun-nai tolesikan gabe azaltzen da, txokondorik gabe; bere biotzak ez du alozik, dana laua ta berdiña da, abereak inoz ikuitzen ez duten ur geldi axala bezelakoa. Gauzaren bat ez dan bezela esan nai duanean ere, begietan eta aurpegiko goritasunean bereala igertzen zaio.

Bear bada tolesgabetasuna ez da onbide bakar bat; onbide-xorta da, eta bi zati ditu: axala ta mamia. Tolesgabetasun-mamia zuzentasuna da, gure gogoa Jaungoikoarengana daramakigun zuzentasuna, Berez danez eta gauza guztietan dagonez beti Jaungoikoa bakarrik bilaazitzen digun zuzentasuna.

Gogoa zuzenduzkero, bereala ezartzen dio bere zuzentasuna gogoak adimenari, egia besterik bilatu ez dezan bere jardun guztietan: orixe

bera egiten die gero zentzuai ere, gauza guztietan Jaungoikoa edo Jaungoikoak nai duana besterik bilatu ez dezaten.

Gogoaren ta adimenaren zuzentasun oietan ezagutzen da tolesgabetasun jatorra ta gizagaxokeria: tolesgabea izatea ez da gizagaxoa izatea: gizagaxo diranak oker darabilkite edo adimena edo gogoa; ez dute tolesgabetasunak bear duan gogo edo adimenaren zuzentasunik.

Tolesgabetasunaren axala, jarduketarako argitasuna da. Kristau tolesgabeak ez du zertan ezkutuan ibili, dan bezelaxe azaltzen du beti bere burua: izketan egizalea da, lanean langilea, jantzian neurikoa, ez apaiñegi ez zarpalegia, ixila, ots-aundi gabea; iñori laguntzeko beti gertu dago eta mesederen bat egitean ez du egiten sariarengatik, biotz-biotzez baizik; ez daki gezurik esaten, bañan egia ixiltzen bai, esan bear ez danean; ez dizu bitara aditu ditekenez itzik bein ere esango, berak dakialarik beintzat; ez ditu berak dakizkian gauzak, diran baño aundiago egiten: dakiana, bat ere arokergabe, esaten du, esan bear danean. Biotz-biotzez gofoto du bearik gabe egitazko itzez iñor gezureratzea.

Mundutarak ezin izan dezateke egiazko to-

lesgabetasunik, ez bait-dute onbide onen mamia dan zuzentasunik beren gogo ta adimeanean. Alare ez dute atsegin izaten inoren aurrean gaizto azaltzea: eta ontatik dator beti zuri- ketan ari beara, beren baru ustela estali naiez. Zurikeri au berak azkartasuntzat euki oi dute eta zurikerietan trebe egotea gizarteko beiri ondo jakitea dala esaten dute. Bañan izen politak jañi aren zurikeria, zikin-pila bat sarek estali nai izatea bezela da, ta beragatik zurikatzaileak beti nazka ematen die ta gogait eragiten benetako gizonai; mundutarak berak ere ezin eram izaten dute zurikeriaren ustel-usaia, naiz- ta, len bezela beñiz ere, zurikerietara jo ta beti zurikerietan bizi.

Bestel: koxea dago tolesgabetasuna! Toles- gabea bildurik gabe azaltzen da bere etsaien aurrean ere, ez bait-dio inoiz kalterik egin inori. Bera da bere buruaren babes ta girizi. Etsaien biotzeko ateak zabalik arkitzen ditu beti, berak ere zabalik bait-dauka bere biotza beste guz- tientzat. Etsai ta adixkide, danak dute maite, danak begiratzen diote ondo, eta itzez ez bada, biotzez beñik-bein, danak diote alako itzal eta begirapen bat.

Jesukristok, Jaungoikoa zan-ta, nai-ta-nai

ez tolesgabea izan bear zuan, oso tolesgabea. Bere gogoak ez zuan Aitak nai zuana besterik nai. Bere adimenak ez zuan egia besterik bila-tzen. Bere ezpañak ez zuten bein ere gezurik esan. Izketan, ibilian eta jardunean ezin zitekean ura baño tolesgabeagorik. Inoiz egin diran itzaldirik bikañenak Berak egindako «Zorionekoena» ta «Maitetasunarena» dira: ta lenengoa belar ezetan exerita zegon batean egin zuan eta bigaena apalondoan, apostoloakin maian zegola.

Lur-zabaleko izkuntza guztietan irakurtzen da Jesukristoren Ebanjelioa eta izkuntzak elkañen antzik ez izan añen, guztietan ageri da, Bera bizi zala, danak txoraturik zeuzkan Jesus' en tolesgabetasuna. Gaizkilerik aundienai itz egiten zienean ere, beti poliki, beti goxoro, beti maitekiro egiten zien. Bein bakañik ikusten degu berotuta begietatik sua dariola eta zorotz mintzatzen: Pariseo zurikatzañeai itz egitean.

Tolesgabetasun ori bere inguru guztian zabalitzen zuan Jesus'ek. Ebanjelioetan esaten diran gertakariak baño gauza xamuñago, goxoago, tolesgabeago ta beragatik bikañagorik ere ez da izan, ta izango ere ez da: goxotasun onek txoraturik uzten ez duan irakurtzañeak.

biotza gaiztakerian gogortua izan bear du.

Jesus'en ikasleak Beragandik obetoen ikasi zuten onbidea, tolesgabetasuna zan: auxe zan ikasleen ezaugaria. Izketan, jardunean, jantzi-an, jatean, gauza guztietan oso tolesgabeak ziran. Orixe bera erakusten zieten lenengo kristau zintzo aiei ere eta bide ofetan okertuko ziran bildurez, naigabe aundiak eramaten zituan Paulo Apostolu Doneak. Aurtxo jaio-beñiak esne gozoa artzen duten bezelaxe, berak Jesus-en erakutsiak maltzurkeri gabe ikasi zitzatela esaten zieten San Pedro'k eta gañerako Apostolu guztiak.

Eta bai ederki ikasi zituztela, gero, lenengo kristauak apostoluen erakutsi eder oiek! Guztiak aritzen zituan aien izketarako argitasunak, aginduetako leialtasunak, eta iñorekin jarduteko zuten atsegintasunak. Gañerako Erromataren aldean, itxasoko uretan sartzen dan ibaia bezela ziran.

Eta jantzia, bañuan zeukatenari zegokion bezelakoa izan zedin, sorbaldatik eta orporaño-ko jantzi txuria ebabiltzen zuten, bataio-ondorengo zortzialdian.

Ez da, beraz, aritzeko gauza tolesgabetasunez Jaungoikoarekin bat egiñik bizi ziranak,

danak elkarēn artean ere bat egiñik egotea, eta onela anima ta biotz bakarf bat izanik, ain pake aundian, zeruan bezelaxe, be onetan bizi-tzea.

Tolesgabetasunezko eredu ta ixpilua zeran Teresatxo zorionduna! Zeñen egoki emango zenduan zuk lenengo bristau on aien artean! Zeñen pozik biziko ziñan zu tolesgabetasun eta maitasunezko ain aize goxoa artzen zan kristaudi aretan! Ez da aritzekoa Ebanjelioa irakurtzean zuk atsegin artzea.

Lenengo kristau aiek jentil artean bezela, gu ere, jeltildurik dauden kristau-arteān bizi geranezkero, iritxi zaiguzu zure tolesgabetasun or̄tatik pixka bat bederen, bere gozotan mundu guztia kristautasunez gozatu dezagun.

### **Teresatxoren itz-xorta, ezpa onaz**

1) Jesus'ek gurutzean zintzilik zegola esandako «Egaf̄i naiz» itz aiek entzuten nituan nere biotzaren erdi-erdian egunero eta ordu arte bein ere somatu ez nuan bezelako gar bizi batek berotzen 'asi ninduan. Nere Jesus maiteari edaten eman-naia etortzen zitza-dan orduan, eta neri ere egaf̄ia, anima-egaf̄ia ematen zidan Jesus ala ikusteak. Jesus'en odol ede'ra ixurtzen nien animai nik orduan. Or̄elaxe saiatzen nintzan Jesus'en egaf̄ia itotzen.

2) Igarleak eta erakusleak bezela nik ere argi egin nai nieke kristauai. Lurzabal guzian Zure izena zabaltzen ibili nai nuke: zure gurutzea sinistegabeen baztar guztietan sarturik utzi nai nuke. Bañan mixio-leku bat ez det asko: une berean lurzabaleko baztar guzti-guztietan erakutsi nai nuke zure Ebanjelioa. Mixiolari izan nai nuke, ez urte batzuetan bakarrik, mundua asizanetik asi ta mundua bukatu arte guztian.

3) Animak bear dira, Jauna. Batez ere Apostoluak eta Martiriak, aien bitartez Zure maitetasunean pekatari guztiak berotu ditezen.

4) Jaungoikoaren naia bakar-bakarrik nai det: eta egia esango det, zeruan Jaungoikoarentzat lanik ez egitekotan, antxe oñik ez sartu naiago det.

5) Jaungoikoaren deiak narama zerura, Jaungoikoaren deiak eta Bera nai aña maite izateko itxaropenak, eta beste asko ta askori Bera maitaraziko diedalakako usteak.

6) Ez det zeruan alpeñik egoteko usterik: beti-ta beti Elizaren ta kristauen alde lan egiteko asmoak ditut an ere. Orixe eskatzen diot beti Jaunari: emango didala uste det.

7) Oraintxe entzun det urutira soñu edeña: laister entzungo det beste askoz edeñagoko bat zeruan; poz aundia artu det ori bururatzean, bañan an entzungo dedan soñuak baño oraindik geiago txoratzen dit biotza an Jaunak emango didan eta nik besteai eman al izango diedan Jesus'en maitetasunak.

8) Lanerako garaia oraintxe laister datorkidalakako susmoa daukat: oraintxe laister asi beña naiz kristauai Jaungoikoa maitarazten... nere bidetxoa danai

erakusten. Zeruan ere luferkoai on egiten bizi nai det. Mundua bukatu arte ez det atsedetik izan bear. Aingeruak «ez da geiago denborarik» esatean, orduantxe atsedenduko naiz, zeruratu beñak ordurako zeruan izango dira-ta.

## LAUGAÑEN EGUNERAKO OTOITZ-GAIA

### **Apaltasunaz**

Umien izakeran geiena nabañmentzen dan gauza, apaltasuna da. Au nai du Jesus'ek guk umeai ikastea; eta onentxengatik esan zien Apostoluei, umiak bezelakoak egiten ez ba'ziran etzirala zeruan sañtuko.

Apaltasuna, Bernardo deunak dion bezela, geren buruen ezagueran bidez, gure argaltasuna eta ezereza ikuserazten digun onbidea baldin ba-da, ¡jaurtxo bat bai dala apala! ¡bere txikitasuna bai ondo ezagutzen duala! Ikusten dute, ta ez diote begiratzen; itz-egiten du, ta ez diote entzuten. Iritzirik iñork ez dio eskatuko; gauz bat erabakitzen ari diran tokitik, beñiz, bialdu egiten dute arin asko, eta bera alare alai ta lasai egongo da. Eñitan eman, jo, eskuan duana kendu, baztañtu, nai guzia egin, ta umea orduan ere paketsu, ezer geñta ez ba'litzaio bezelaxe. ¡Oñen gutxitzat jotzen du bere burua!



Gure arokeriantzat, beriz, zaila da benetan umeai en izakera au. Kortxoak urgañerako duan joera berbera degu guk ere beste guzien gain jaítzeko; eta kortxoá urpean ikustea bezin ari-gaía da, gu geren buruak goi-beratu naiean ikustea.

Umea ezerez uts-utsa da: eusten ez ba'diote zutik ezin egon da; erortzen ba'da, auspez geldituko da. Zikintzeko aiña ba-da, garbitzeko, beriz, ez. Etsai bat ikusten ba'du, ez dio iges-egingo; eta jana aúrean euki aren, inork ematen ez ba'dio, goseak ilko da.

Ezerez orixe berbera gera, ba, gu ere gogozko bizitzan, kristau-ikasbideak darakusgun bezela. Baña bizitz ortan ere zenbat eta lan geiago egin, orduan da irabazi ohea izango degula ba-dakigu, ta geure aldetik pitin bat sayatzen geralako, irabazia, Jaungoikoak ez, baño gerok egiña dala uste izaten degu. Umeak generala aztu egiten, alegia. Koxkoitu egiten. Bañan nunbait, ai! koxkoitu-ala grazia iges dijoakigu, edo obe-toago esan, uts-egiten digu. Jaungoikoaren laguntza gurekin izan nai ba'degu, ume iraun beaí degu beti, eta gure aundinaikeriak zapaldu; ezer ez generala aitoitu, graziari jaítzen dizkiogun beaztopak kendu, ta berari txintxo-txin-

txo jaraitu. Bañan datořkigun neurian, geiagoren bila ibili gabe.

Gogozko-Auritasunean: beař-beařena auxeda; gure izakeran botatzen dituan kimu beřiak moztuaz, graziari bide egin, eta berari txintxo jaraitzea.

Ama Birjiņa, sořtu zan une ber-bertatik olaxe bizi izan zan, graziaren ituřian aoa ipiņi ta, Jainkoak ematen zion guztia edaten zuala, tãnto bat ere alpeřik galdu gabe. Geroago ta geiago graziz ta doaiez apaintzen ari zan, baņa alare beti bezin apala ta kaxkařa jotzen zuan bere burua, bestek ematen ziona ařtu besterik egiten etzuala ba-zekin-da.

Gure Teresatxo donea ere olaxe bizi izan zan, Jesus eta Mariaren biotzetatik darion grazia, ixil-ixilik, bañan ugari edanez.

Eta auxeda zerutik erakutsi nai digun bidea.

¡Bai! erakutsiguzu, apala baņo apalagoa izan zeran zoriondun ořek. Eta bidaliguzu, Ama Birjiņaren bidez, gure Betiko-Aitak txikiei erakutsi nai dien bide ori ezagutzeko, ařgi izpi bat. Eta munduko aunditasunaren laņezaz ařoturik, burua goian darabilten luřtařak tikitzeke, eta ařokeriak galdu duan mundu au, apaltasunaren

bidez zeruratzeko, Jainkoak autu ziñun ezkerro, zure bidetxo ori ondo dakiten gizon langileak ere, añen, bialdu itzaizu, mundua lenbai-len beritu dedin.

## **Teresatxo'ren Itz-xorta**

### **Apaltasunaz**

1) Egunero gertatzen diran gora-bera, ta gazi-gezatan apal irautea, eta bastañtua nai izatea, opa dezakegun gauzik onena dala erakutsi zidan zeruko erege Jesus'ek. Eta nik, bere antzera, arpegia beti izkutuan euki nai izan nuan.

2) Teresa argala da, txautxe gabe argala; egunetik egunera obetogo ezagutzen du berak ori. Bañan Jesus'ek atsekabe ta oñaze-miñetan poztu-azitzen duan jakinduria bialtzen dio.

3) Txikia naiz ta, gauz txiki ta zirtzilak baizik ezin eskeñi dizkiot Jaunari; eta askotan, biotzari ainbeste atsegin ekañtzen dioten gauz txiki oyek eskein-tzea ere, aztu egiten zait; bañan etzait oregatik gogoa aultzen, atsegin gutxiago izate ori alai eramana, urangoan ernaiago egoten sayatzen naiz.

4) Nere maite-maite ori, bai apala ta txikia zaude-la osti txuri ortan! Apaltasuna erakusteko ezin ziñan geiago jetxi; nik ere, ba, zure maitasun ori pitin bat ordaintzeko, nere burua beeratuz eta gaitzetsiz, zure neke ta atsekabetan esku detala bizi nai det, gero zerruan ere alaxe izateko.

5) Nere txikitasun eta ezerezean pozik bizi naizelako, Jaungoikoari atsegin aundia ematen diot: bere erukian itxu-itxu uste detalako ere asko poztutzen det, eta, orfela, pixkoka-pixkoka bereganatu egiten nau Jaunak. Bañan ¡bai gutxi dirala Jaunaren onginaian benetan uste dutenak, eta beren buruak goiberatu ta basteñturik ikusi nai dituztenak!

6) Uts edo oker bat egiten degunean, gaitz edo egualdiak ez baño, geron auleriak egin erazi digula uste izan bea degu. Baña orégatik ikaratu gabe.

7) Piñña ta kaxkaña nintzalako beeratu zan niganaño Jesus, ta erakutsi zizkidan bere biotzeko txokoak.

8) Aroa izateko txikitxo naiz; apaltasuna ba-detala adierazi dezaketen izkuntza politak egiteko ere bai iñolaz. Guzialdunak gauz aundiak nerekin egin dituala esan naiago det; eta aundien-aundiena nere txikitasun eta gauz-eza ikusteraztea da.

9) Txikitasuna ta izkutua iñork ez ditu nai... Guztiook geron buruak agertu egin nai ditugu, goi-goian erabili. Baña apal-apal txikien ondoan jañtzen saiatu gaitezten, Jauna'ren laguntzarik gabe ezerere ez dezakegun uste oso-osoa... Orduantxe bai aska, bai maiteki eskua luzatuko digula gure Jaungoiko maiteak. Bañan geren buruz gauz aundien bat egiten asten ba'gera, bakañik, laguntzarik gabe, utziko gaitu. Beraz, geren buruak goi-beratzen, eta akatzak alai eramaten saiatu bea degu. Auxe da egiazko adoretasuna.

10) Apostoluak, Jesus berakin etzuten batean, gau guzian añantzan ibiñita, añai bat ere etzuten añapatu... «Semeak, jateko ezer ere ba-dezute?» galdetu zien

Jesus'ek. Eta Pedro'k, beren aultasuna aito'rtuaz «Irakasle—erantzun zion—gau guzian a'antzan ari ta, ez degu ezer egin». Naikoa izan zan au, Jesus'en biotz e'ukio'ra biguntzeko, eta bereala egundoko mirari bat egiteko.

11) Geren buruak akaztuak, eta bestenak akatzgabeak dirala uste izatea, zorion aundia da. Argala ta maketsa naizela i'ñork uste duanean, eta, batez ere, argal ta maketstasun ori neronek nabaitzen detanean benetan poztutzen naiz. Ondo-esanak be'iz, asko naitgabetzen nau.

12) Ni ez naiz ona. Santuak bezelako gauz a'ri-ga'iririk ez det egin: Jaunak grazi ta doaiez apaindu duan ume txiki bat naiz ni.

13) «Ah, oraindik gauza asko a'rtu bea'ean naizela, bururatzen zaidanean»!... esanaz zegoan monja bati: «a'rtu bea'ean ez ba'ño, utzi bea'ean esazu» erantzun zion gure Teresatxo'k. «Zuk txar'keriz beterik daukazu anima *ustu* zai dago Jesus, graziz eta doaiez bera betetzeko. Bai i'ñolazere... Bide zuzenetik etzoazela deritzat aizpa. Zuk mendi goira igo nai dezu, ta berak mendi ba'enean ikusi nai zaitu: antxen, apaltasunaren a'rzulo i'ñunean itxogiten dizu-ta.

14) Zer esan degun iga'rtzen ez ba-digute, eta guzaz gaizki esanka asten ba-dira, ixil-ixilik burua ma'ku'rtu egin bea' degu. ¡Ain atsegi'ña da, izan ere, bestek gu epaitzea!

15) Monja bati, txit mi'ñ ematen zion gauza txiki bat egi'ñ-azteko, onoko au esan zion: «Monja Karmel-da'ñak a'rtu ez ba-ninduten, Damututako emakumetan sa'rtuko nintzan».

16) Jaungoikoak ainbeste doaiez apaindua zere burua ikustean, ¿zer uste izaten dezu?— Jaungoikoaren Espirituaren arnasak nun-nai agintzen duala.

17) Zeruan lore eder, ikusgarri bat izango zala, esan zion bein monja batek: eta «ez naiz lorea izango —erantzun zion—. Zerutañen loreen oñetako goroldio pixko bat izango naiz.

18) Bere azken-orduan, apaltasuna txit maite izan zualako poztu-azi naiez, monja-nagusiari onela esan zion: Bai, egi-biñā ibiñi naizela uste oso-osoa nago: ezagutu det biotz apaltasuna.

## BOSGAÑEN EGUNERAKO OTOITZ GAIA

### Uste-izatez

Teresa doneak erakutsi nai digun bidetxo oñen aldapa aundiena, atzo igaro genduan. Apaltasuna zan aldapa aundi ori. Gauñ, oñen kideko beste onbide bat erakutsi nai digu: Jaungoikoaren almen, zintzotasun eta onginaian uste izatea. Apaltasuna, uste-izate au gabe aukeria baizik ez da. Umearen apaltasunak zoratu egiten gaitu; bañan Amaganako konpianza ta uste osoa gabe zer litzake umea? abere ta basapiztiak baño zoritxañagokoa; auek zeozer ba'lezakete; umeak, beriz, ez. Baña Jaungoiko Gure Jaunak abereai bezela eskuarñterik eman

ez ba-dio ere, oyek guztiak baño obeago dan beste bat eman dio. Amarekiko konpiantza ta uste oso-oso, alegia.

Eta uste onek ez dio egundaño utsik egiten. ¡Eta bai lasai, bai ustetsu juaten dala beragana! Aberatsa ala beartsua izan, almen aundi-koa ala txikikoa, berdin zayo; Ama duala ba-daki ta, au aski du.

Umea bere eginbeařak betetzen baño argalagoak gera gu gogozko bizitzari dagozkionak egiten. Bañan umeari amaganako zaletasuna eman dion bezelaxe, eman digu guri ere Jaungoikoak beraganako joera pixko bat, beragana juanez, gaitz eta akatsak kendu, ta grazi ta doaiak eman ditzaizkigun. Amaganako jardun eta uste on ori gabe galdua litzake umea; eta bai gu ere Jaunaganako joera pixka ori ez ba-gendu.

Eta au onela izanik, ¿zer dala-ta itxu-itxuan geron uste guzia Jaunaren eskuetan ipiñi ez? ¿Gure neke ta atsekabeak ez al-ditu ezagutzen, ala ezagutu ta ez al-ditu sendatu naiko? Eřege, aberats eta askotan edozein gizonen ontasunean uste izaten degu, ¿eta Jaungoiko Gure Jaunaren berdingabeko almen, zintzotasun eta onginaietan uste izango ez degu? ¿Buruz noiz jantzi-

ko ote gera! Umea, ama argala ta beartsua ba-du ere, beragana dijoa, eta gu eŕuki ta maitasuna besterik ez dan Jaunagana ez gera jaungo? Ama batek, ama danetik, bere umea gose ta negaŕez ikusi baño, il-da ikusi naiago du. ¡Oŕenbeste maite du! Eta Jaungoiko Gure Jaunak, maitasunaren mami ber-bera dan gure Aitak, neke, ta zoritxaŕetan, bakaŕik, laguntzarik gabe utziko gaitu? ¡Esan ere bai!

Uste-onbidea ta itxaropena berdin-berdiñak ez dira. *Itxaropenak*, gure egintza on eta Jaunaren graziaren bidez, zeruko gloria itxogin-azitzen digu, *usteak*, beŕiz goŕputzari eta animari, bizitz onetan dagozkien eginbeaŕak betetzeko Jaungoikoak emango digun laguntza. Uste-onbidea, beraz itxaropen-onbidea baño uŕiagoa, bakanagoa da. Itxaropena izan nai ba-degu, zeruko gloria, ta gloria au irixteko bide beaŕenak, au da, pekatuen baŕkapena, eta on egiteko eta pekatua baztaŕtzeko laguntza, Jaungoikoak emango dizkigula uste-izatea aski degu.

Bañan uste-onbidea izateko ordea, oyezaz gañera, Jaunaren almen, zintzotasun eta onginaia, gure argaltasuna, eta batez ere guri digun bere maitasun-gaŕaren aunditasuna ondo ezagutu beaŕ dira. Eta au saŕagoa da. Ez da, beraz,



añitzekoa, uste-onbidea onbideen artean edere-  
na ba-dala esatea.

Onbide au ez duten askok, besteak ba-du-  
tela ikustean, beren pekatuagatik ez dutela  
izango-ta, asko naigabetzen dira. Eta onbide  
onen zain eta oñaria, Jesu Kristo'ren almena ta  
onginaia ez baño, geren irabaziak dirala uste  
dute. Gaizki, ordea. Gure akats eta erúak ez  
dira Jaunean uste-izateko oztopo, eragintzale  
baizik; eta beartsuak aberatsari, eta gaixoak  
sendagileari deadañ dagion bezela, akats eta  
erudunak otsegin beañ dio animako gaitzen  
sendagile dan Jesus'i

Eta ¡bai pozkañia, bai atsegingañia dala Je-  
sus'en biotz maitatiarentzat, gure sendagile iza-  
tea, gure okeñ eta erúak garbitzen bere erukia  
agertzea! Zenbat eta erudun eta kixkilagoak  
izan, orduan-da bere erukia agertzeko bide aun-  
diagoa ematen diogu. Eta oretxek goratzen  
Jesus....

Oregatik esan zuan Sales'ko Pranzisko do-  
neak, Jaungoiko-erukiaren sustrai ta oñaria gu-  
re okeñ eta uts egiñak dirala.

Ustegabekeriaren kalteak inork ere ez de-  
zazke beañ bezela ezagutu: gure Jaunaren bio-  
tza saminduz gañera, graziak bialtzen galerazi

egiten dio, bere doaiak dakaŕzkin eŕetena itxi egiten du-ta. Gure otoitz geienak ere ustegabekeriak agórtzen ditu.

Uste-izateak, beŕiz, jori atsegiña ematen dio Jaunari! Onbide onen neurĭan bidali oi ditu bere emaitzak. «Zure uste aundiak sendatu zaitu» esan zion Jesus'ek odol-jarioa zuan andrearri (Math. IX. 22).

Aundizki batek, Jesus'ek, etxera juan-da, goŕputz zegoan alabaren gañean eskua jaŕtzen ba-zuan pixtuko ziola uste izan zuan. Eta uste zuan bezelaxe pixtu zion Jesus'ek, esan guzia egin zuanean. (Math. IX. 19)

Kafarnaun'go buruzaiak ere, bere etxera juan gabe, eta itz bat bakaŕa esanaz, moŕoia sendatuko ziola uste izan zuan, eta Jesus'ek, bere uste aundiagatik, itz batez sendatu zion. Askotan esan oi zuan gañera: «Uste dezun bezela geŕta bekizu».

Eŕege batek bere menpeko guztiei, eskatzen zioten guztia emango ziela, agindu zien; bañan berari «Aita» biotzez esanaz, eta benetan emango ziela uste izatekotan. Au entzutean, bi menpeko juan zitzaizkion. Eta batek, ikaraz daŕdaŕ eta «Aita» esateko bilduŕez, diru pixko bat eskatu zion; besteak, beŕiz, eŕegearen almen, zin-

tzotasun eta onginaian uste oso-osoa zuala, bea' zuan guzia. Bi oetatik, ¿nor, deritzazue, izango zuala begikoen? ¿Nori emango zizkion doai geiago? Biga'nenari, noski.

¡Apaltasun eta uste-izatearen mami ber-be-ra zeran Teresatxo! Uste-onbide ori eza'ri eigu-zu gure biotzetan, gure animen babes a ta ze-ruko ateak irikitzen dizkigun giltza bera da-ta. Iritxi iguzu, a'nen, gure akats eta e'ruak ezagu-tzeko laguntza; ba'nan akats eta e'ru auek ez di-tezela Jaunaren e'rukian uste izateko eragozpen edo ostopo izan, au'nerabide baizik. Atera zazu gure biotzetatik a'rokeriaren zuzta' sakona, ta aldatu bere tokian uste-izatearen landara. Jaun-goikoaren bula' e'rukitsuen ezaguera ere emai-guzu, bera ezagutuaz eta maitatuaz, bere biguin-tasunaren emaitz pozka'riak len-bait-len iritxi ditzagun.

### **Teresatxo'ren itz-xo'ra**

#### **Jaungoikoagan uste izateaz**

1) Jesus'en Biotza benetan samintzen duan gauza, ustegabekeria da.

2) Gauz aundiak asmatzen diran gizaldian gaude. Ma'az-ma'la igo bea'rik ez dago gau' aberatzen bizite-gitara juateko: goraki'nak dagoz ortarako. Onbidean

mañadia igotzeko ñikia naiz-ta, nik ere Jesus'en ondora juateko, olakoxe gorakin bat nai nuke. Gorakin onen biñia Liburu doneetan ibiñi naiz, eta itz auxek biñatu ditut: *Txikia dana, datoñela nigana*. Bañan txikiakin Jainkoak zer egin nai zuan, jakin naian; oñiz-oñi nebiñela, onoko auxe ikusi nuen: *Amak bere semea bezelaxe poztu, ta magalean erabiñiko zaitut, eta bulaña emango dizut*. (Isai. LXVI. 12, 13.). Oñen itz goxo ta eztitsurik, eta nere biotza geiago poztu dutenik ez det egundaño entzun.

Zure besoak dira, Jesus laztana, zerura igoko nauten gorakiña. Bañan artarako azi ez baño, gero ta geiago ñikitu egin beañ det nere burua.

3) Jesus'en biotzaren maitasuna ezagutu dedan ezkerro, bilduñ guzia kendu zait; alai ta lasai bizi naiz.

Nere akatzen oroitzak kaxkañtu-azi egiten nau, nere indaña aintzat ez añtzen beañtzen nau. Bañan Jaunaren eñukia ta maitetasuna ere gogoratzen dizkit oroitz onek. Kristau batek, bere okeñ guziak uste oso osoan maitasun-gañetara botatzen ba-ditu, kixkalita zearo ezereztuko zaizkio.

4) Nere poza, ta itxaupide guzia, animak bizirolbilduñtzen diñuan Jaunaren zuzentasuna da. Zuzena izatea, eñudunakin zoñotza izatea bakañik ez da; asmoak igeri, ta onbideak saritzea ere zuzenarena da. Jaungoikuaren zuzentasunean aiña itxaropen bere eñukian ere ba-det; zuzena dalakoxe da *eñukioña, beraa, biotz-biguña, ta asañatzen zaiña*. Erorikoñak eta auts pixko bat baizik ez gerala ondotxo daki berak. *Aita batek bere semeak bezelaxe eñuki gaiñu gu Jaunak*. (Ps. 102, 8 etc.)

5) Aita batek bi seme ditu; biurriak eta esanik aditzen ez dutenak biak. Jipoia ematekoan, seme bat txit ikaratu ta iges dijoakio; bestea, beñiz, damu-damu egin da, beragana yuaten da, ta musu bat emanaz, ona izango dala agintzen dio aitari. Aita aren biotzak, uste dezute, seme maiteari barkatu gabe etsiko duala? Ez orixe. Biurrikeritara beñiz ere itzuliko zaiola bada ki baño, alare damutzen dan guztitan, bere semetxoari barkatzeko geñtu dago. Bestea beñiz, au bezin kutun eta begikoen izango ez duala, esan beñik ez da.

6) Lagunen oker txikiak, arrotzen oker eta oben aundiak baño askozaz ere miñ geiago ematen diote Jesus'en Biotzari. Bañan *Nere eskuen erdian dakuzkituten zauri oek, maite ninduten etxean egin zizkidaten dionean, sañi ta barkapenik eskatu gabe oker egiten dutenentzat bakañik itz egiten duala, deritzat.*

Maite dutenak, eta oker bat egin ondoren, uste oso osoan barkapena eskatzen diotenak, pozaren indañez taupaka ipintzen dute Jesus'en Biotza, eta etxetik urutira juañ zan seme aren aitak, moñoiñ esan ziena, esaten die zeruko aingeruei: *Erastun bat ipiñi ezaiozute heatzetan, eta otordu eder bat egin zagun.* (Luc. XV. 22.)

¡Ah! bai gutxi ezagutzen dala Jesus'en Biotz erukitsuaren onginaia ta maitasuna! Doai oyek izateko, gure txikitasuna ezagutuaz, aundinaikeriak zapaldu egin beañ dira ta, ori gutxik egin nai dute, beñiz.

7) Legoña nagonean, min izan beañ nuke, Jaunagako nere otztasunak legortzen nau-ta; eskeñak ematen, eta otoitzak egiten ere ergela nabiñenean, negañ egin beañ nuke, eta alare ez naiz naigabetzen. Aurtxo-

ak lotan ere, esnai aiñaxe poz ematen die gurasoai; sendagiñeak, bere eginbeñak egiteko, lo arazitzen die gaxoai; eta Jaungoikoak erorikoñak eta auts pixko bat besterik ez gerala ondo daki.

8) Atzen-orduko estu-lañiak, eta gaitzaren oñaze-miñak, danik eta aundienak izan da ere, ez naute bildurtzen, Jaungoikoak beti lagundu dit, eta txiki-txikitatik asita, oraiñarte bere eskutik narama.

9) Uste izateak, eta ez bestek ekañi beañ digu maitasuna.

10) ¡Jesus! maitasunak txorabiatu, ta maitasun-gañaren txinpañtak kixkali zaituela esaten utzi ezada-zu. Eta ori gogoratzean, nere biotza, oñazkaña bezela ¿nola ez da zugana juango? eta ¿nola izan ez zure maitasun eta onginaian uste osoa?

11) Ez dabil nere anima Jaungoiko-biña oben astunik izan ez dualako. Oben itxusi ta astunenak izan banitu ere ez litzaiket, oñegaitik, itxaropen-izpi bat galduko; biotza eruki ta oñazez puxukatua nukela, len-bait-len Eroslearen beso biguñetara juango nitzake.

12) Zerura juateko pozik nago; bañan Jaunaren itz auek irakuñtzean: *Laixter natoñ, eta saria nerekin dakart, bakoitzari bere egintzak ordaintzeko*, nik egin-tzarik izan ezta, nerekin zer egingo ote duan galdetzen diot nere buruari. Bañan ez naiz ikaratzen, bere egin-tzai dagozkienaz sarituko nau-ta.

13) Iñungo ederñtasun guztiak ba-ditu nere Jesus'ek, bañan esan al-banezake, gaitz bat ere ba-duala esango nuke: *itxua*-izatea, eta *kontutan* ez jakitea. Bañan luñeko beste iñorengan txit kupigañiak liraken bi utsune

auek gure Jesusengan oso maitagarí dira, ¡bai ondo alare! Argi ba-lekus eta kontutan jakin, orenbeste oben ikusi-ta, ber-bertan ezereztuko giñuzke. Bañan, olaxe, itxu-itxu biurtzeko, eta eman dizkigun doai ta graziak, eta guk berari egin dizkiogun oker eta pekatuak zenbatu ez ditzan, biotza bilatu bea' diogu: biotza ikutu ezkerro ezin digu ezer egin.

14) Oker bat egin zualako oso minberatuta zegoan monja bati esan zion bein Teresa'txok: «Gurutzea artu zazu, ta muñ egiozu». — Oñetan muñ egin zion. — «Alaba batek oñela muñ egiten al-dio bere aitari?... Musu emaiozu arpegian». «Ez da aski ori; gurutzea masail banatan ipiñi ta, maite-maite egin bea' diozu... Orain dana ba'katu zaizu».

## SEIGAREN EGUNERAKO OTOITZ - GAIA

### **Luñeko gauzak uzteaz**

Aurtxo txiki batengan, gauza guziekiko nabaritzen dan arduragabetasuna oso arigaria da. Ondasunagatik ez da urduritzen; izen onagatik ez da laritzen; apain jazteagatik ez du buru aus-terik izaten; nai bezela bizitzeagatik ez da estutzen; iñork zor izan lezaioken begirapen onagatik ez du ajolarik izaten. Otzari gogo' egiteko gauza dan soñeko bat, eta, bizi izateko aña zer jan izan ezkerro, beste ezertxok ez dio bururik nekatzen. Bere iritzia ere ez du ainbesteko.

tzat aítzen, eta bere gogokoa dana uzteko oso eítez jaítzen da. Besteak beragatik esan lezaketten ezertxok ez dio batere ajolarik; eta, besteak zer egiten duten galdezka ez da ibiltzen, eta aiek egiten dutenagatik gaizki esaka gutxigo beíz.

Gure aundinai aóarentzat ikasbide edeák oiek! Ondasunak eta biziera onegia izateko degun joera makuía kendu dezagun lenbizi; gero beíz, izen aundia eta toki guzietan lenengo izateko gozo geiegiak utzi ditzagun. Gure, eta geron etxekoen ondasunak, osasuna, auéraperak, bizitza, eta etoíkizun guztia, Jesus-en eta Bere Ama maite Maria-ren eskuetan utzi ditzagun, oietzaz nai dutena egin dezaten. Gure iritzi eta ustea; gure gogoaren naikeriak, eta nai onak ere bai askotan, utzi beáf ditugu, oiei lotuta egoteak, Jaungoiko Gure Jaunarekin alkaítzea eragotzi egiten digu-ta. Besteak egiten dituzten lanak, nolakoak diran galdezka ez degu ibili beáf; eta, gureak txarák dirala esaten badute, ez degu batere estutu beáf.

Gogo-bizitzako argitasun eta poz atsegiñak ere neuígabean ez ditugu nai izan beáf; guztiak Jaungoikoak nai duanerako utzi beáf ditugu, ta Berak ematen dizkigunean artu, beste



gauzak, Jaungoikoa maitatu ta Bere gogoa egiteko artzen ditugun bezelaxe; atsegin aiek joaten zaizkigunean, beriz, ez berai begira gelditu, eskilarak igo ta gero atzera begira gelditzen ez geran bezelaxe. Jaungoiko Gure Jaunak, gu bide batetik edo bestetik, azkarxeago edo astiroago, onela edo ala eramatea ez degu nai izan bear. Gutxiago beriz, nai izan bear degu, bide ez oitu ta arigarrietatik eramatea: bide oiek biotz aundikoai dagozkienak dira, ez aurtxo txiki ta argalentzat egiñak. Zerbait nai degunean, gauzarik txikienak, beragarrienak eta ildurapenik geiena dakarketenak aukeratu bear ditugu, gutia Goiko-Jaunaren gogo donearen eskuetan utziaz; eta gogo ori, Beraren beste edozer ondasun baño geiagotzat euki, baita gure obekuntza bera baño ere.

Orduantxe gure biotza, Espiritu Donearen arnasa artzeko gerturik dagoke, baita bere bulzakadari ezeren eragozpenik gabe jaraitzeko ere; argizai biguñā bezelaxe izango gera, Jaungoikoak bere irudia atera dezan.

Orelako biotz berekoiezak, oso asko poztutzen du Jaungoikoa; eta, Berak, goiko argiz bete, Bere emaitz ederez ase, eta, nai duan bezela erabiltzen du orelakoa.

Oretxegatik, guk inorganako edo ezerganako naikunde txarrik izatea ezin eraman izaten du; eta, naikunde arietan ez erortzeko, osalari onak bezela neke gogoarak bidaltzen dizkigu; ori egiteak, biotz oneko aita dan ezkerro, min ematen badio ere. Askotan ondasunak kentzen dizkigu, izen ona ere bai, gurasoak, semeak, ezkontideak eta lagunak ere bai; beste batzuetan osasuna eta geiena maite genituzen gauzak. Ba-da bere biotza geiago samintzen duan beste gauza bat, baña ala ere egiten du aldizka, ore-lako lokañi txarretatik askatu gaitezen: oso maite dituan animai, berai dieten maitasun aundia ez die agertzen batzuetan; eta, maite ez balitu baño geiago ez die begiratzen, bekozko iluna jañi bai, Betiko Aitak, Jesukristo'ri Berari, gurutzean maitasun-agergairik edereña ematen zionean, egin zion bezela.

Berekoieztasun onek; beste edozer gauza baño Jaungoikoa naiago izate onek; beste edozer baño len, Bere poz-atsegiñak baño ere geiago, Bere naia gugan bete nai izate onek, biotza oso biguntzen dio Jaungoikoari; arduragabetasun onek guganutzen dizkigu Bere doai ta laguntzak.

«¡Nere Jesus maitea! Nere ezkontide sa-

»muña! Bataioan eman ziñidan jantzi txuri  
»edeña ez dezadala zikindu, añen! Zure ondora  
»deitu nazazu, biurikeririk txikiena nai-ta egiñaz,  
»nere animak bere txuritasuna galdu baño len.  
»Beti Zure bila ibili nadiña, ta Zu besterik añki  
»ez dezadala, añen! Luñeko izaki guztiak utske-  
»ri bat izan bitez neretzat, ni ere bai aientzat.  
»Nere biotzeko naretasuna, ezertxok ere ez de-  
»zala beñere nastu. Nere eskeintzak zintzoki  
»betetzen lagun zadazu, eta nitzaz iñor ez de-  
»diña gogoratu; ondarantzako are-ale bat bezelaxe  
»oinperatu nazatela. Nere on guztia!: Zuri es-  
»keintzen dizut nere burua, Zure gogoia bete de-  
»din; gogoia betetzeko, izakiak eragozpenik  
»ez dezaidatela neri jañi.» (1)

### **Teresatxo'ren Itz-xofa afduragabetasunaz**

1) Ezin diteke; baña, Jaungoiko Gure Jaunak nere lanak ikusiko ez ba'litu ere, enitzake naigabetuko. Asko maite det, eta beti poz eman nai nioke, naiz gero, nik poztu ote-dedan Berak jakin ez.

2) Nere Jesus'en Aintza! Orixen da nik nai dedan guztia. Neri letoñkidaken ospe guztia Berari eskeintzen diot, eta nitzaz aztuko balitzake ere, ondo legoke,

---

(1) Zorundun Teresatxo'k, moja arñu zutenean egin zuan otoitza.

ori bere eskuan dago-ta; ni berarena bait-naiz, ez ne-  
rea. Jesus lenago aspektuko litzake ni Bere zai euki-  
tzeaz, neroni Bere zai egoteaz baño.

3) Jesus'engan ezpada, ez da beste inorgan inolako  
laguntza-bila ibili bear. Bera bakarrik da iraunkofa. Zer  
atsegiña, aldatu ez ditekela, ta beti bat dala gogoratzea!

4) Gizonentzat zorion bakar bat besterik ez dago  
emen, lufean: ezkutuan bizi, eta izakien artean inork  
ezagutu gabe irautea .

5) Jesus'i beti eskerak ematen dizkiot beti ilunpean  
ibiltzen naulako: orela pakean izaten naiz. Berak sartu-  
azi naun etxe izkutu ontan nere bizitza, guztia igarotze-  
ko ajolarik ez det: nere iluntasunaz, pekatariak argi  
pixka bat iritxi al izatea besterik ez det nai.

6) Emen, ludi ontan, ezertxori itxasterik eztago,  
ezta gauzarik erugabienai ere; gutxiena uste degunean  
ezer gabe arkitzen bait-gera.

7) Degun guztia areta aundiaz jaso bear degu Je-  
sus'entzat. Beretzat bakarrik lan egitea, ibai atsegin-  
gafia! Orduan bai biotza pozez betetzen dala! Anima  
oso zerukoi biurtzen da orduan.

8) Lufeko aintzarik ez det beñere nai izan: besteak  
nere burua aintzat ez eukitzeak asko poztutzen nin-  
duan beti; ori ere geiegi nuala ikusia, guztiak ni az-  
tuta euki al izateak zoratu egiten ninduan gero.

9) Orain, biotzaren eta animaren ondasunetatik,  
lufekoetatik bezin uruti ibiltzeko laguntza iritxi dedala  
esan dezaket. Nere aizpai atsegin izaten zaien zerbait  
gogoratu edo esaten detanean, nik esana, gero berak  
berena bezela besteai esatea bidezkoa iduritzen zait.

«Oñelako gogapenak Espiritu Doneari dagozkio, ez neri. Berak, nere txikitasuna bide duala, anima bati gogapen onak bialdu lezazkioke.

10) Ona, Jaungoiko Gure Jaunak, eriotz-ondoko epaialdian gogor ez artzeko bide bat: bere aurrean esku-utsik agertu. Moja-gai bati auxe esaten zion: «Etzaitez irabazten dezuna, irabazi alean jasotzen ari. Larogei urtean biziko ba'nitz ere, beti beartsu izango nitzake: dedan guztia berealaxe zabaldu egiten det animak zerruratzeko.»

11) Eleizako gauzatzaz liburuak egin, oleñki bikañak atera; ori guztia, nork bere buruari uko txikienik egitea baño gutxiago da.

12) Moja gaiari ala esaten zien: zuek, eskuarñtean darabilzutenari geiegi lotutzen zatzaizkiote; etofkizunak, zeron eskuetan balego bezela, oso lañitzen zaituzte. Beste moja-etxeetan gertatzen danak estutzen al zaituzte?, edo angoak lanpetuak ote-dabiltzan galdezka ibiltzen al-zerate? Aien zeregiñak, zuen otoitzak egiten eragozten al-dizute, agian? Zeronganako ardurak ere oñelakoxea izan beañ du; eta, gauza bakoitzerako emandako aldia, arñtan igaro; biotza ezereri erantsi gabe ordea.

13) Ona bein batean galdetzen ziotena:— Onbidezko gauzak oñen edeñki egin; eta, beti atsegintsu, nare ta beñdin izateko nola moldatzen zera?— Enaizñ beti oñela ibili; nere burua baztañtzen asi nintzan ezkeroztik, ordea, iñork uste lezaken baño zoriontsuagoa naiz. Jaungoiko Gure Jaunaren aurrean agertzeko ordua datoñenean, gauza bakañ au egin izatea beañezkoa degula obetogo ikusten det: beti Beretzat lan egi-

tea, eta norberarentzat eta luferko izakientzat ezer ez egitea.

## Penitentziaz

1) Nere gauzatxoren bat kentzen zidatenean mar-maŕean ez ibiltzeko oitura artu nuan; nik egin ez nuan zerbait salatzen ba'zuten ere, ixilik egon naiago nuan, nere alde itz bat atera baño.

2) Amaŕ urtekoa nintzanean, aitak dibujoa ikastea nai zuala esan zion nere aizpa Zelina'ri. Ori nere aur-ean esan zion, eta, nik, aren zoriona neretzat ere nai nuan. Aitak, nik ere ikasi nai al nuan galdetu zidan. Ia-ia baietz esan nion, baña, une artan nere Jesus'i ildurapen edo penitentzi aundi bat eskañi nezaiokela gogoratuaz, ixildu egin nintzan.

3) Munduan bizi nintzala, goizean esnatzen nintzanean, egun artan gutxi gora-bera izango nituan aldi onak eta aldi txarak zein izango ete-ziran gogoratzen egoten nintzan. Aldi txarak besterik izango enituala ikusten ba'nuan, naigabez jeikitzen nintzan. Orain etzait orrelakorik geŕtatzen: egun artan izango dituan nekeak gogoratzen zaizkit; nere Jesus'i maitasuna agertu, eta animen ama naizen ezkerro *nere aur-aen janaria irabazteko*, bide ta neke geiago ikusten ba'ditut, beñere baño pozikago jeikitzen naiz orduan. Gero nere gurutzeari muñ ematen diot, eta, poliki-poliki burkoaren gañean jaŕtzen det, ta jantzi bitar-tean otoitz au egiten diot: «Nere Jesus maitea! Zuk len naiko lan egin zenduan; luŕ negar-gaŕi ontan bizi izan ziñan ogeita amairu urtetan, naiko negar egin zenduan. Gauŕ atse-

den zaitez... Orain neri dagokit nekepean eta ixtilutan ibiltzea».

4) Bein, otoitzeko garaian, bere arosayoakin otsaundia ateratzen zuan aizpa baten ondoan nengoan. Begiratu nai nion, baña ofelakorik ez egiteko esaten zidan ots bat nabaritu nuan barenen. Neke ori Jaungoikoagatik, eta, nere aizpari atsekaberik ez emateagatik eramateko esaten zidan ots ezti ofek. Orduan oso bare gelditu nintzan, baño izefidi blaitan jañi ere bai. Gero, arosayo-ots mingañi aretan atsegin artzen alegindu nintzan; eresi edeñ bat ba'litz bezelaxe, aretaz entzun nuan azkenik eta eresi xamuñ aie'k Jesus'i eskañiaz bukatu nuan nere otoitz-alditxoa.

5) Beste bein garbiketak egiten ari giñan bi aizpa. Besteak, aropa jotzerakoan ur zikiñez bustitzen ninduan noiz-nai. Nere aizpa lankideari, zer egiten zuan obetogo begira zezan adierazteko, musua garbituaz andik alde egitea izan zan nere lenbiziko asmoa; baña, ain oparo eskintzen zitzaizkidan aberastasunak beste gabe uztea, tuntun baten lana izango zala gogoratu zitzaidan, eta, ofela, nere nazka ez agertzen alegindu nintzan. Gero, ur zikin geiago nai izaten ere alegindu nintzan, ta andik ordu erdi batera, olako garbiketa edeñari on irizten asi nintzan; eta aizkenik, olako aberastasunak utsean ematen zituzten zorioneko toki artara, al nuan maizena joateko asmoa artu nuan.

6) Gauza guzietan neketxoak eta nere gogoari uko egiteko erak bilatu beañ ditut, nai ta nai ez. Eta ofela, eskutitz edo karta batek, nere gogoari gogof egiñaz eta iñoren agindua betetzeagatik egiten ez baret, ez dit ezeren ondasunik erakañiko. Moja-gai bati

itz egiten diotanean ere, nere jakinai utsa arotuko luteken gauzak ez galdetuaz, nere buruari uko egiten alegintzen naiz. Gauza jakingariren bat esaten asi, ta, lengoa bukatu baño len, beste aspergariren bat esaten asten ba-zait ere, ez diot ezer esaten, nork bere gogoa beti egin ezkerro, ezer onik ez dagola iruditzen zait-eta.

7) Txilin-otsaz deitzen zaigunean, naiz gure atee-tan deitzen digutenean, geron gogoari beti uko egin bear diogu, eta ezertxo ere ez egin orduan eskatzen zaiguna bukatu baño len; orain arte ofela egin det, eta pake-ituñi bat izan da ori neretzat.

8) Ezertarako adorerik etzuala esaten zuan moja-gai bati onela erantzun zion: «Pozik geiena eman bear lizukenak mintzen zaitu...»

9) Geron buruak adoretzu nabaritzen ditugunean bakañik buruka egin bear ba'gendu, gure irabaziak nolakoak izango lirake? Ari-albiñu bat jasotzeko gogorik ez dezunean, Jesus Gure Jabeari diozun maitasunagatik jasoko ba'zendu, bero-beroan egindako lan aundi batekin baño geiago irabaziko zenduke. Jesus-ek, zeroñen eziña nabaritueraiaz, anima geiagoi zerurako bidea zabaltzeko era ematen dizu.

10) Otorduak ondo egiteko nola ibiltzen zan galdetu zioten batean, ona zer erantzunz uan: Otorduetan gauza bakañ auxe egin bear degu: eginkizun artan asmo onez jañdun. Otorduan izaten ditut maitasun-erasorik gozoenak..... Nazaret'en nagola iruditzen zait: añai umotua, ardoa, jaki-gazi eta bestelako gauza astun-xamañak Jose Doneari eskeintzen dizkiot. Gauza beroak, sagrañ ondo elduak eta ofelakoak Andre Ma-



ria-ri; Jesus-i beñiz, jai egunetako janaria, ezta, esnea eta abar eskeintzen dizkiot. Jateko txarñen bat ekañtzen didatenean onela diot poz-pozik: Au guzfa zureztat, Teresatxo.

11) Barau-egun baten, zerbait gozo eman zioten, eta bera, zizare-belañez aua samintzen somatu zuten. Beste batean, osakai gañatz bat astiro-astiro añtzen ikusi zuten.

12) Teresatxo beste nonbait zan batean eskutitz jakingari bat irakuñi zuten, jostatzekeo garaian. Añatsaldean, eskutitz ura irakuñtzeko gogoa agertu zuan. Gero, jabeari eman zionean, eskutitzean aitatzen zan gai batez bere iritzia eman zezala esan zioten: gai ura Teresatxoren gogokoa izango zala bazekiten-ta. Goñitu zan, eta: «lengo añatsaldean agertu nuan geigizko gogo ura berdintzekeo, penitentzi-neketxo bat eskatu dit Goiko-Jaunak, eta ez det irakuñi» erantzun zien.

13) Jostatzekeo garaian, beste iñoiz baño une egoikiagoa izango dezute birtute edo onoinenetan jañdutekeo, esaten zien moja-gaiari. Jostaketatik irabazi aundiak atera nai ba'dituzute, etzaitezte zeon buruak jostatzekeo asmoan ibili: iñori aldi on bat ematekeo gogoa izan bedi orduko zuen asmoa; eta bitañtean zeon buruak ez gogoan euki. Zeoiri jakingaria dala iruditzen zaizuten zerbait esaten ari zeratenean, beste aizpak, zuek diozutenari utzirik beste zerbait esaten asten bada, ixildu zaitezte, eta aizpa ari añetaz entzun, berak diona gexalagoa izan añen.

## ZAZPIGAÑEN EGUNERAKO

### OTOITZ - GAYA

#### **Jaungoikua'ren eskuetan geren buruak**

#### **utzi bea' ditugula**

Aurak beste gauz guztietan duan arduraga-betasunakin ze-ikusi aundia du bere burua amaren eskuetan uzten duan bezela uztiak. Bere ama naikua du ta o'regatik uzten ditu beste gauza guztiak. Lasaitasuna, poz-atsegiña, atsedena: dana amari eskatzen dio ta dana beragan arkitzen du.

Etsairen bat-edo ikusten duaneko, bere amaren magalera itzultzen da; antxen dago inun baño lasaiago ta pozago.

Atsekabez edo gaxo ba'dago sendakai-eske bereala amarengana da; gose edo egañi, logale naiz neketsu ba'da, amarengana beriala, nai duana egingo diola ba-daki-ta. Bere besoetan ba'dago etzaio ajolarik ez igarotakuagatik, ez orainguagatik, ezta ere eto'rkizunagatik; orain duana, aski zaio oraingo, ta gañerakua amaren gain gelditzen da. Naiz eskuetan artu, naiz utzi;

luñian exeriaz i edo seaskara eramán; nai duana egiten uzten dio; ama bait-du ura. Batzuetan bilduñtzeagatik gora jasotzen du; beste batzuetan balantzán botatzeko bezela darabilki, baño jalpeñik! aurpeñian bilduñ-aztañenaren ordeñ, pañ iñia soñtzen zaio; bilduñik ez duala esan nai ba'lu beñela.

¡Zein ikasbide polita, zein jañraibide edeñra ematen digun gure Jaungoikua'k aurñtxo ofetan!

*¿Ez al naiz ni zure aita? esaten digu Isaias'en bitartez; ¿Aztu al dezake amak semia? Ez aldu bere kutuntxoá eñuki izango? Amak, eñuki gabe, bere semia aztu al ba'dezake ere ba, nik etzaitut beñere aztuko. Emen nere eskuetan idatzita zaude. Nere magalian erabili-ko zaitut eta nere belaun-gañetan lo-añerazi-ko dizut (Isaias 49-15).*

Jaungoikua aita guztiak baño aitago da, altsuago, jakintsuago, aita guztiak baño askozaz maitaleago; ofegatik gure ardura guztia bere gain artzeko eskubiderik geiena Berak du; ofegatik bere besoetan atsedentzeko beañ aundia degu.

Eta ¡onek bai poztu ta atsegintzen duala! Bera dan bezelakotzat ezagutu ta artzia baita, ba; egiazko aitatzat, aita txit maitaletzat Bera

eukitzia. Onetxek txoratzten du, onetxek euki-erazten dio oñela Bera'gan uste osua ipintzen dutenen ardura berezia. Eta beste aldera, bere arduratasunaren ustea galdu-ta gizonagan laguntza-bila ibiltzeak nola atsekabetzen duan! Bere Jaungoikuaren eskuetan jañi nai ezik Egipto'tařen laguntza eske ibiltziak ondatu zuan Juda'tařen eña.

Goiko Jauna'k ez du gure birañetan gizonen arteko laguntzarik ez artzeko agintzen, ez; baño batez ere gure Aita'gan nai du guk uste osua izatia. Zoriona naiz zoritxaña, osasuna naiz gaitzak, bizia naiz eriotza, poza naiz atsekabia, argia naiz iluna, pakia naiz guda, Bera'k nai duana gugan izan dedila. Izañetara jaso edo luñpera sartu nai ba'gaitu, gogo duana egin dezala ta orain arte bezela orain ere ortatik etzai-gu okeñik etoñiko. Abraan'ekin egin zuan bezela, gure zintzotasuna aztertu baizik ez du egingo, gero zintzotasun ori saritzeko bidea izan dezan.

¡Jesus Auña'ren Teresa zorionduna! Goiko Jauna'ren eskuetan ain utzia zeunden eta gu gerok alaxe egotia nai dezun oñek, eten itzazu gure biotza izakiai lotzen dieten lokañi guztiak; añen guk ere, edozein ama baño maitatiago dan

Jaungoikua ezagutu dezagula; afixku, bial, zirik gaixto ta ekaitz guztietan bere Jaungoikozko besoetan Jonas'ek urontzian bezela lasai loegin dezagun eta bildur gabe ta neke gabe zeruko atsegintegira iritxi gaitean.

### **Teresatxo'ren itz-xorta**

#### **Bere burua Jaungoikua'ren eskuetan uztiaz.**

1) Nik, Jesus Auia'ri bere jostalū izateko eskeñi nion nere burua. Ni jostalū txar bat bezela erabiltzeko esan nion; pelota txiki bat bezela naiz luiera bota, naiz ostikoka erabili, naiz puskatu, naiz baztaru, naiz jaso, ala nai bazuan. Ez ordia umiak ondatzeko bildur ez, ikuitu gabe, ikusi bakarik egiten duten jostalū eder bat bezela. Ara; Jesus jostatu nai nuan eta Berak ni jostalutzat artzia.

2) Ontzitxo bat bezela Jaungoikua'ren gogoz bete-betia daukat biotza. Oregatik ezer gañera botatzian ez da biotzian ondoratzen; urgañean oliyua bezelaxe gelditzen zait. ¡A! Nere biotza lendik betia ez ba'lego, ain erex etofi ta juaten diran atsegín edo atsekabez bete bial ba'litz, orixe bai litzakela neretzat atsekaberek samiñena. Ez naiz beti zintzo-zintzo ibiltzen, baño ez det oregatik etsitzen; beti gure Jauna'ren besoetan nago; «Bera'k erakutsi dit nigan daukadan onetik bezela txaretik ere onura ateratzen; Bera'k erakutsi dit maitasun-jostaketa; obeto esateko, nere ordez Bera jostatzen da, nola dabilen neri batere esan gabe; ori

bere egin beara da, ez nereea; neretzat onen-onena nere burua nere gauza guztiakin Bera'ri ematia da, neretzat ezer ere gorde gabe ta jokua nola irabazi duan ere jakin nai izan gabe.

3) Etoriko diran atsekabien bildur izatia oso gaizki dago; bildurtegia izatia da ori. Maitasun-bidian gabiltzanok ez degu ezereen ardura bear. Une guztietan atsekabe zerbait izango ez ba'nu asafe ibiliko nintzake. Igarotakuari ta etorkizunari utzita orainguaren ardura edo besterik ez daukat. Etsitzen duanak, igarotakoen edo etortzekoen ardura dalako etsitzen du.

4) Len atsekabea ta eriotza nai-izaten nituan, orain beriz ez, baño ala ere maite ditut. Nere loretxua udaberian bildu beara dala nago txiki-txikitatik. Orain gauza guztietan, Jaungoikua'gan ipintzen det nere us-te osoa. Gogo beroz gauza bat baka'rik eskatzen det; Goiko Jauna'ren gogua nere animan egin dediā.

5) Nere aldez otoitz egizute, zeruari laguntza eske nagoanian-ta baka'ago arkitzen naiz-eta. Orduan eskerak ematen dizkiet Jauna'ri ta Deunai, nere ustia zenbaterañokua dan aztertu nai dutela iruditzen zait-eta. Goiko Jauna'gan detan utzitasun ontara eltzea txit zaia izan zait baño, oratik, azkenian iritxi naiz.

6) Orain ez dit egan egiten ezerk ere eragozten; il arteraño maitatu beste gogorik ez bait-det. Loka'ri guztiak eten ditut eta, ez naiz ezereen bildur. Etzait ajolik luzaroan gaxo egon eta etxeari asperga'ri izanda ere.

7) Jauna'k eman didan guzti-guztia eder izan zait naiz-ta neri ainbestekua ez iruditu.

8) Batzun-batzuek eriotzari bildur ote-diozun uste dute. — Ba-diteke; nere asmoetan ez naiz bein ere gogor egoten. Orain beintzat pozik nagon, Jauna'k ala nai du-ta: atsekabe-aldia ere etoriko da noizpait.

9) Zu etzera oratik garbi-tokira joango?—Ez nau orok batere estutzen. Joaten ba'naiz ere, Babiloni'ko iru mutikuak bezela sutan atzera ta auera maitasun-kantuak abesten ibiliko naiz an ere.

## ZORTZIGAREN EGUNERAKO

### OTOITZ-ALDIA

#### **Maitasun-bizitza**

¡Maitatzea zer dan ere jakin gabe zein *maitasun sakonez* maitatzen duan auak! ¡Zein begiratu xamuak bereak, zein paña gozuak, zein maite-maite atsegiñak bere amarentzat dituanak! ¡Aren negaak ama joatean! Bere bila nola ibiltzen dan eta biatzian bere besoetara nola joaten dan!

*Maitasun garbiz* maite du; aberatsa, beartsua; edera, itxusia..., dana-dala, etzaio ajolarik. Ama da ta orixe aski du.

Iñor baño *maitasun aundiagoz* maite du; Eregin batek, besoak zabalik deitzen ba'dio ere, eregiña utzi ta amarengana joko du.

Azkenik *maitasun oso-oso*z maite du; amagatik ez bada ezer gutxigatik berari ajola; dana guztia beriala uzten du beragatik.

Guk gure Jaun eta Aita'ri izan bear' diogun maitasunak ere *sakona* izan bear' du; biotz guztiz, gogo guztiz eta indar' guztiz maite izan bear' degu Bera.

Maitasun *garbia* izan bear' diogu; Bera bakar'ik eta Bera'gatik maitatu bear' degu, geren buruakganako maitakeriari gogo' egiñaz.

Maitasun *aundi-berezia* izan bear' diogu: txit zintzo begiratu bear' diogu pitxi ain ede' oni gure naikeri ta atsegiñak bera irixtearen atzenduaz. Azkenik maitasun *oso-oso*a izan bear' diogu; gure izaera ta indar' guztiaz Bera bakar'-bakar'ik maite izanaz.

¡Jesus Aua'ren Teresatxo txit zoriontsua!  
¡Zuk bai zure-zuria izan zenduala txikitandik Jaungoiko-maitasunaren pitxi ain ede' ori! ta Goiko Jauna'k ere bai maite izan zinduala zu!  
Pitxi ori irixteko izan ziran zure otoitz, gogo ta neke guztiak. Etzuan Jauna'k zure biotza iñorganako naikeriak kutsutzerik nai izan eta zure biotzak Jesus'en ede'rtasuna ezagutu zuanetik jur'a zure Bera'ganako maitasunaren suga'ra!

Jauna'ganako maitasun xamu'-xamu'ra, gozo



-eztia, garbi-utsa dariote zure itz eta egintza guztiak. Zuk erakutsi nai diguzun *bidetxoaren* irugañen atala Goiko Jauna'ganako maitasuna danez, erakutsi zaiguzu, añen, zuk maite izan zenduan bezela Bera maitatzen ¡Aita bezela maitatzen! Zuk agintzen diguzun añosa-euri artan Jaungoikua'ganako maitasun-añosa goñi-goñia ere eman zaiguzu, zuk bezela, emen luñean eta gero guztiak alkañekin maitasun-leku atsegiñean maite izan dezagun.

Luñ zabal osora añosa-jasa bat ixuri zazu bertan nagusi dan nor-bere-buruaganako maitekeria uxatuaz, bere takian Jaungoikoa'ganako maitetasuna itxatxi dedin; maitasun onentzat egiñak izanik, luñtañon biotzak bera gabe zori-ontsu ezin izan ditezke-ta. Betoñ eta betoñ len-bait-len eta ugari-ugari Jesus'en Biotza'ren agintea.

### **Teresatxo'ren itz-xoñta**

#### **Jaungoiko - maitasunatzaz.**

1) Nere Jesus. ¡Zenbat maite nai zindukedan! Egundaño iñork maite izan etzaituan ainbestexe.

2) ¡Maitasun-jakinduria! Nere animako entzumenarentzat itzik xamuñ-goxoena auxe da. Au beste jakinduririk ez det nai.

3) Maitasun gabeko egintzak danik eta aundienak ere utsa dira.

4) Giau batez ez nekian nola agertu Jesus'i nion maitasuna, Bera toki guztietan maitatua ta goraldua ikusteko gogo bizia. Gaiztokian. inpernuan, inork maite ez duala gogoratu zitzaidan eta toki bildurgarri artantxe sartuta bizitzeko gogua etori zitzaidan biratu ta negarrezko leiza artan ere norbaitek beti-beti Goiko Jauna maitatu zezan.

5) Jesus'en maitasuna animarik aundi -goienez bezelaxe sortzen da eragozpenik ipintzen ez ba dio, anima txiki-apalean ere. Maitasuna apala da; Eliza argitu zuten Deun jakintsuen antzekoak balira anima guztiak, beragana urbiltzeko Jaungoikoa ez litzake asko beeratuko; oregatik sortu ditu aur ezerez-argala ta basati erukañi-gaxoa ere ta oiexen biotzetara ere jetxi egiten da Jaun ain altsu ori.

6) Legostasuna dala-ta otoitz eta onoimenezko egintzarik egin ezin dedanean Jesus'i atsegin emateko egokitasun bila saiatzen naiz; par-iri bat eginaz edo itz on bat esanaz, ixilik egoteko ta aserea agertzeko gogoa daukadanean.... Ori ezin badet beriz, saritan Jesus'i maite dedala esaten diot.... Maitasun-su onek itzalirik dagoala eman azen-autsgañera lasto-izpiak -eta botatzen ariko nitzake ta sua indartu egingo litzakela nago.

7) Bide oneratu nintzan egunean sartu zan goimaitasuna nere animara, nitzaz aztuta beti bizitzeko gogoarekin batera eta ordutxetik zorientsa naiz.

8) Nere maitasun dana-guztia Jesus'entzat da ta zipitzik ere ez, beste gauza guztientzat.... Gaur aña-

tsaldean bezela Bera'ri eskeintzeko ezer ez dedanean, ezerez orixe eskeñiko diot.

9) Deuntasun-mendira igotzeko bide bakar bat dakit: Maitasuna..... ¿Norentzat izango ote da gure biotzeko maitasuna? ¿Nor, bere ugaritasuna artzeko naiko aundi? Bat bakar-bakarrik da. ¡Jesus bera!

10) Egiazko maitasuna nor bere buruari uko egiñaz indartzen da ta zenbat eta atsegin geiago nor bere buruari ukatu, ainbat eta aundiago ta sutsuago biurtzen da.

11) Jesus'ek ez du urte askoren bikañik maitasunaren bidez bat santu egiteko; une batian bere Biotzeko argi-izpi batez zabaldu dezake loretxo bat zerurako. Maitasunak, bizitza luzeko lan guztiak denbora gutxian egin oi ditu. Jesus'ek ez dio denborari begiratzen, betikoa bait-da; maitasunari bakarrik begiratzen dio.

12) Ez det maitasun nabarmenik nai. Maite dedala Jesus'ek jakitia aski det.

13) ¡O nere Jesus! Pakea bakarrik eskatzen dizut. Batez ere maitasuna, maitasun sutsu, neurri-gabea. Zure aintzarako il egin nai nuke; Zu'gatik gorputzean edo animan martiri izan nai nuke. Emaidazu añen, bat edo beste ¡Jesus! Nik, biak eta naiago.

14) ¡Ai nik nabari dedana nabari balute neria bezelako anima argal eta tatarra dutenak! ¡Orduan bai ez lutekela maitasun - mendi - goira igotzeko itxaropenik galduko! Jesus'ek ez baitu gauz aundirik eskatzen ortarako, Berari esker eta uste ona agertzea naikoa da. «Zuen artaldietako akerik ez det beak... dio. Gose bantintzake ez nitzuteke omen eta esker oneko opariak

eskeintzeko, esango». Alare Jaun ořek ber-berak eskatzen dio Samari'tar emakumeari ur pixka bat. Baño andre ari ura eskatu zionean, biotzeko maitasuna naitzuan; maitasun-egaři zan. Gauř dago Jesus beñere baño egařiago. Eskeř gaixtoko ta ajolakabeak besterik ez du arkitzen bere ikasleen artean eta *bereetakoen* artean iñor gutxik dute Jesus'ganako maitasun gařtsua.

15) ¡Zeñen eřexa dan maitasun-bidea! Jakiña, bide ortan ere erori ta okeřak egin ditezke; baño maitasunak danetik ona ateratzen du ta Jesus'i atsegin etzaion guztia bereala eskutatzen du, pake apal eta aundi bat bakařik biotzean utzirik.

16) Bein batian, pekatariantzat gertu dauden zigorřkadak beren bizkař artu nairik, Jauna'ren zuzentasunari beren buruak oparitzat eskeintzen dizkioten animak gogoratu zitzaizkidan. Aundia da benetan opari ori, baño ez neukan nik berau egiteko batere gogorik. ¡O nere Jesus! ¡Nere Irakasle ta Jaun maitea! Zure zuzentasunak bakařik beař al ditu opariak? Zure maitasun eřukiořak ez al ditu beař? Maitasun aundi au ez da iñon ere ezagutzen. Animen batzuek zure maitasun oři oparitzat bere izate dana eskeñiko baliote, maitasun gařez kixkali egingo zenitukela uste det, eta poztu egingo ziñake noski zure maitasun-gařak zabaltzen dijuazelako. ¡Jesus maitea! Nik izan nai det opari zoriontsu ori; sutu, kixkali nazazu Jaungoikozko maitasun-gař ortan. Egun ura ezkeroztik nere inguru ta bařuan maitasuna nabari det; beti beřitu ta garbitu egiten nau *maitasun eřukioř ořek* nere biotzetik pekatuaren kutsu guztiak kenduaz. Ez daukat batere garbitokiko

suaren bildurik, maitasun-garñak garbitokikoak baño obeto garbi-donetzen dute-ta. Ez degu eskeintza ori egin beař, geren buruari atsegiñak emateko asmo ta itxaropenakin... atsekabe ta neke guztiak geregan izateko baizik; nor bere buruari uko egiteak bizi bait-du maitasuna.

Jesus maitatzeko, maitasun-opari izateko, zenbat eta argalago, zenbat eta txikiago ta obe; ořela bat maitasunaren aldaketa ta egintza guztietarako egokiago da-ta. Opari izateko, gogoia aski da, baño beti-beti beařtsu ta aul izateko etsia egon beař da; auxe da zaġen-zaġena. Maitasun-oparitzat beren buruak eskeñi dituztenentzat azken *juiziorik* ez dala izango uste det; Jaungoikoa'k ořelakoen animetan ikusiko duan *bere maitasuna* len-bait-len saritu naiko baitu betiko atsegintegian.

17) Biotzez beařtsu ta izakiekiko maitakeritik garbi izatea urutietako ondasun edeřa omen da; ala dio Kristo'ren antz-bideak. Gu ere aundi-naikeritik uruti gabiltzan; geron řařařtasuna maite dezagun eta biotzez beařtsuak izango gera, ta danik eta urutien ba'geunde ere, Jesus biġa joango zaigu. Berak maitasun-sugar biurřtuko gaitu.

18) Maitasunak beraganatzen du maitasuna; nereak, Jesus, Zuregana nai du, azkengabeko maitasun ori bete naiaz. Baño itxas-zabalean ur-řanřo bat baño txikiago da.

Zuk maite nazun bezela nik Zu maite al izateko, Zuregana maitasun-eske joan beař det; ořelaxe arkitzen du nere biotz-animak poz-atsedena.

19) Goi-maitasunak erakutsi zidan otoitz egiten.

Eliza Ama'k gorputz-zatiak izanik, guztietan beařena dan *biotza* ere beař zuala ikusi nuan eta biotz ořek maitasunez betea egon beař duala. Baita ere ikasi nuan maitasuna dala gorputz guztia ibili-arazten duana. Maitasunik gabe etzuten Apostolo'ak ebanjeliorik zabalduko, ezta martiriak beren odolik ixuriko ere. Onbiderako dei guztiak maitasunak zuzentzen dituala ere garbi ikusi nuan; eta azkenik dana maitasuna dala ta, betikoa izanik, aldi ta toki guztiak betetzen dituala.

20) ¡Ene Jesus! Gauza bakař bat nai det gogo be-roz; Zu maite izatea. Gauza aundirik ezin egin dezaket; Ebanjelio zabaltzen ezin ibili niteke; ez dezaket nere odolik Zuregatik ixuri ere. ¡Ez du ajolarik! nere orde z anaiak lan-ta-lan ari dira, ta nik, auřtxo txiki onek Jauna'ren jařleku-onduan lanean ari diraren orde z maitatu egingo zaitut.

21) ¿Nola agertu ordēa nik nere maitasuna? Auřtxo txikiak Jauna'ren Jařlekua lore z apainduko du, au da, nekerik txikienak ere gogoz artuko ditu: egitekorik apalenak ere maitasunařen egingo ditu. Neke ta atsegin guztiak maitasunez artu nai ditut. Ořelaxe estaliko det lore z nere bidea; bide ortan bilatuko ditudan lore guztiak zure atsegiņerako neronek jalkiko ditut, Jauna. Gaņera eztaři leunez maitasun-kantua abestuko det. Beti kantari ibiliko naiz, nere ařosak arantz-artetik atera beař izan-ařen. Zenbat eta luzeago ta zořotzaguak izan arantz oiek, nere abestia ere edeřagoa, ezfitsuagoa izango da.

22) Zeru-goira begira zeuden batean, berak ikusten zuten zeru ori baņo gorago bizitzera aurki joango zala esan zion Teresatxo'ri Aizpa batek. — Maitasunez begi-

ratuko diozu oratik? — Pañ-iri batez erantzun zion. Baño gero moja nagusiari ala esan omen zion:—Ama, gure aizpak ez dute nere atsekabeen beñirik. Zeru urdin-edeñari begira nengoenean, guk ikusten degun zeru orék arituta nendukan; *beste*a gero ta itxiago dago neretzat.

23) Gau batez moja gaxo-zaiak, eskuak alkañturik zerurontz begira zegoala arkitu zuan.—¿Zer egiten dezu or? galdetu zion. Lo egin beañ zenduke orain. —Ezin det ordea, aizpa maitea; atsekabeak ez didate uzten. Otoitzean nago. —Eta ¿zer esaten diozu Jesus'i? —Esan, ezer ere ez; maitatu egiten det.

24) Zeruko zorionaz itzegiten ari zitzaion aizpa bati, ez nau orék poztutzen, esan zion Teresatxo'k. —¿Zerk poztutzen zaitu, ba?—*Maitasunak*, Jesus'ek, poztutzen nau; nik Jesus maitatzea; Jesus'ek ni maitatzea; ta luñ zabalean Jesus, Maitasuna bera, maita-eraztea da nere atsegiña.

25) Jesus ¡Ai anima txikiari diezun onginaia ezagutu-erazi al ba neza! Ezin diteke, bañan nerea baño anima txikiagoko bat biñatuko bazenduke, uraxe, nerea baño grazi ta eskeñ ugariagoz apainduko zendukela deritzat, zure eruki neñigabeen bere uste osoa jañiko balu beintzat. Bañan Jauna ¿zergatik daukat nik zure maitasuna agertzeko orenbesteko gogoa? ¿Ez al didazu neri Zuk zerořek erakutsi? Agian ezin al diezu besteai ere Zerořek agertu? — Bai'ta erex gañera. Egizu ba, ařen, Jauna; itzuli itzatzu zure Jaungoikozko begiak anima txikiengana, eta zure maitasunaren gai diran anima txiki-sail bat aukeratu ezazu.

Gurutzeari begira esan zituan azkeneko itzak abe-

xek ziran: ¡Maite det, bai! Nere Jaungoikua... maite... zaitut...

### **Lagun urkoaganako maitetasuna**

1) Al nuan ezkutuen birtutezko egintzak egiten saiatzen nintzan; edo ta aizpai, berak aztuta utzitako jantziak tolestuaz edo ta beste orrelako edozer egiñaz.

2) Aberatsa izan bainintz, ezin egongo nintzan, goseak ikusten nuan beartsuari jaten eman gabe. Gogo-bizitzan ere orixe egiten det; zerbait auferatzen dedanean, beriala, auferatutako guztia eman; bai bait-dakit nik anima asko-ta-asko daudela betiko galtzeko zorrian.

3) Bestientzat ona naizenean, Jesus nabari izaten det nere baruan; eta Jesus'ekin batago naizenean-eta maitasun geiago diet nere aizpai. Maitasun au geitu nai dedanean edo etsaiak bat-edo-baten akats eta utsak begien aurrean jaftzen dizkidanean, ni beren onoimen edo birtute eta gogo onak bilatzen saiatzen naiz. Okeñen bat-edo egiten norbait ikusten ba'det ere, apaltasunez ixilik gorderik gauz eder-on asko euki dezazkela gogaftzen det; edo ta neri okeña iruditu zaidana, onenian, egitean zuan asmo onagatik, egintza on-on bat izango dala.

4) Egiazko maitasuna, lagun urkoaren utsegite, akats eta aulkeriagatik ez afitzea da; maitasuna biotz-bařenen gordeta egotekoa ez da. «Argia ez da lakari-pian eukitzeko pixtutzen, argi-ontzi-gañean ipintzeko baizik; etxeko guztiai argi egin dezaien». Argi au mai-



tasuna dala uste det, eta berak etxeko guztiai argi egin bear die, ez nere kutunai bakañik.

5) Nor berak egin dituan gauzagatik ongi itzegiteak edo-nor poztutzen du; alaxe ba animaren egiñeari ere, Jaungoikoa'ri ere, poza ematen dio, axaleko gauzak utzirik bañuko bere jañlekuak, au da, animak duan edertasunaz guk atsegin izateak.

6) Oso gogoko etzaizkidan aizpa'kin ibiñi bear det, berakin Samari'tañ onaren lanak egiñaz. Itz goxo bat, begiratu xamuñ bat naikoa da, askotan, anima naigabetu bat poztutzeko.

7) ¡Ura atsegin pozgañia animak nabaritzen duana bere jatorizko lerak oinperaturik goruntz altxatzen danean! Biotzez beañtsu diranak izaten duten poz-atsegiñia bezelakorik ez da. Bear duten zerbait eman ez ezik, dutena ere kendu nai badiote, Jesukristo'ren esana dagite: «Zurekin auzian ibiñita soñekoa kendu nai dizunari, eman zaiozu *kapa* ere.» *Kapa* emate au, guztien mirabe, ta guztiak baño txikiagotzat nork bere burua eukitzea da, neretzat.

Soñeko ariñakin eñexago ibiltzen da; oñela esan zigun Jesus'ek beste au ere: «Norbaitek miña uñats-bidean ibiltzeko beañtzen ba zaituzte, miña aiek eta beste ainbeste bidean zoazte berarekin». Eskatzen dutenai ematea ez da naikoa; beren gogoa alegiñean alde-auretik somatu bear det. Ematea, noiz-nai zail ba da, ez da eñexago guk gereaa degun zerbait kentzen digutenean, gurea dan gauza ori beñiz eskatu gabe uztea.

8) Maitasuna, biotzean indañ-duanean, beti azaldu oi da. Iñori, ezin eman degun gauza bat ukatuta ere, eman-da bezin pozik uzteko era goxoak badira,

9) Ez da egiteko ona, egia izan da ere, Aizpa bati zer-edo-zertan uts egin duala esatea, ori guri dagokiguna ez danean beintzat. Ez degu pakeko juez edo epaile izan bea, pakezko aingeru baizik.

10) Jesus'ek, beaitsu bati bezelaxe Berari ere guk limosnatxuak ematea nai du, azken juizioko egunean onoko itz obek esan nai dizkigu-ta: «Atozte nere Aita' ren bedeinkatuak, gose nintzanean jaten eman zenidaten-eta,....» Nik luzaroan bizi bea izatera, gaxo-zai izan naiko nuke, ez nuke eskatuko baño.

11) Gure maitasunezko egintza txiki ta ezkutua uñutietan animak zeruratzen dituzte; mixiolariai laguntzen diegu; eta oñela Jesus'i berari bizi-leku beñiak ematen dizkiogu.

## BEDERATZIGAREN EGUNERAKO

### OTOITZ-GAIA

#### **Gogozko Auñtasuna ta Gure Ama**

Utsune aundi bat izango luke gogo-aurtasuneko bederatziuren onek, Andre Mariaz-zerbait esango ez bagenduke. Auñ batek, batez ere ama bea du; amarik ez badu, ezer ere ez du gaxoak; begira bestela, amaren laguntasunik gabe azitako auñ bati. Jaunari eskeñak, gogo-bizitzan etzaigu oñelakorik geñtätzen: Ama ba-degu, Andre Maria bea,

Ama Birjiña benetako ama da; Jesukristo beragandik jaioa, ta bera Jesukristoren ama dan ezkerro, gurea ere bada, semetzat berak aritu ginduzen-ta. Eta Jesukristo, Eliza Donearen Burua, Espiritu Donearen egitez bere erai garbietan sortu zuan ezkerro, gu, Elizaren zatiak bezela geran oek ere, nolabait sortu bear gaitu. Jesukristok, gurutzean bere azken-naia agertu zuanean, gure Ama jañi zuan. Orela, gure egizko Ama dalako, eta Jesukristok orelaxe izendatu zualako, ama guztien biotzak balitu baño geiago maite gaitu Andre Maria'k.

Eta, ¡bai ederki egiten dituala ama baten egitekoak! Amaren lenengo egitekoa umeari izaera ematea da. Eta orela, Jaungoikozko izaera berezia Ama Birjiñak ematen digu, zeruko ondasun guztiak Bere bitartez etortzen bait-zaizkigu. Aua azitzea ere amari dagokio, bear dituan jan-edanak gertatuaz..... Eta orelaxe Andre Mariak ematen dizkigu, edo eman-erazten dizkio bere seme Jesus'i, gure animaren janaria diran gogorapen onak, goiko laguntzaren ekiñaldiak; Jaunaartzeko gogoa ere Berak beritzen digu, eta ortarako gure buruak gertatu ere bai. Jañabide onak emanaz Bera dijoakigu aurretik; Berak jazten gaitu bere lagun-

tzaz; etsaien erasoetatik, Berak babesten gaitu, eta batez ere Berak egiten du gugan, nola ez dakigula, baña ala ere egi-egiazki, ama guztiak beren aurakin egin oi dutena: gu Bere antzekotu, gugan Bere irudia atera, eta, Bere irudia atereaz, era berean Bere seme Jesus'en antzekoak egin gu. Oretxegatik esan zuan Montfort-eko Grignon Zoriondunak, orean moldean sartzen dan bezelaxe, guk ere geren buruak Andre Maria-gan sartu bea ditugula, Berak gugan lan egin dezan, lenbizi geron buruai uko egiaz: «Nere buruari utzi-ta, naizen guztia zuri damaizut, Amatxo».

Orela ezereztutzen bagera, edo aurak bezela biurtzen bagera, ez gogorapen on bat, ez joera on bat izan ez dezakegula; lan on bat, gerenez ez asi, ez bukatzeko gauza ez gerala; eta gure buruak orela beeratu ondoren Andre Maria'ren eskuetan jaitzen bagera, Bere laztanak, Bere maitasunezko palaku samurak guretzat izango dira: eta zenbat eta txikiago izan, orduan da geiago. Bere besoetan artuko gaitu, eta orela Ama Eder eta Altsu oren besoetan atsedenduaz, inon baño obetogo ta azkarago igaroko ditugu onbideetako bide-txioak.


## **Teresatxoren Itz-xoŕta Andre Mariaz**

1) Bai asko maite dedala Andre Maria! Bai benetan eta gogo beroz goratu izango nuala apaiza izan banitz! Beraganaño joatea zaĭa dala esan beaŕean, Berari jaŕaitzeko bideak erakutsiko balizkigute, obea izango litzake. *Ama ta Eŕegiña da; bañan Ama obeto, Eŕegiña baño.* Eguzkiak, goizean mendi ŕontoretan agertzen danean, izaŕ guztiak estaltzen dituan bezelaxe, Andre Maria-ren dizdizarak zeruko Done guztien aintza ta gloria estali egiten duala esan oi zaigu. ¡Ene Jaungoikoa, oŕelako gauzarik.....! Ama batek, bere umeen aintza estali! Nere iritzia ez da oŕelakoa: nere ustez zoriondunen aintza geitu egingo du gure zeruko Amak, eta asko gañera....


2) Askotan, oŕelako gauzak esaten dizkat Andre Maria-ri: Zu baño zorionagokoa naizela bai al dakizu, Amatxo? Zu nere Ama zera, baña ez dezu nik bezela, beste Andre Maria-rik, Zuk ura, nik Zu maite zaitudan bezela maitatzeko. Jesus-en Ama zerala egia da; baño Jesus neri eman didazu. Eta Berak, gurutzean zegoala, zuri gure Ama izateko esan zizun. Oŕela gu, zu baño aberatsago gera.

3) Nere Ama! Ni zeruko eŕegiña banitz, eta Zu Teresatxo izan, Teresatxo izan naiko nuke nik, Zu zeruko eŕegiña izateko.

(Teresatxo-k bere bizitzan azkena idatzitako itzak, 1897-gngo. Irailaren 8-n.)









1925. - ZORNOTZAN

JAUNGOIKO - ZALE' ren Irarkolan

L